




Bilboko Udala

AGINTALDIKO PLANA

2019 - 2023



EDUKIA

Aurkezpena

or. 3

1. Eduki daukagun Bilbo eta gura dugun Bilbo.
2019-2023rako lehentasun estrategikoak

or. 4

2. Lehentasunezko 100 ekintza Bilbo eraikitzen jarraitzeko


or. 11

3. Jarraipena egitea, ebaluatzea eta kontuak ematea

or. 68



Bilbao



Aurkezpena

Datozen urteetarako (2019-2023) gure Agintaldi Plana osatzen duten 10 hiri proiektu handiak eta lehentasunezko 100 ekintzak biltzen ditugu dokumentu honetan.

Lehentasunezko ekintzak horiek guztiek helburu ekonomiko bat dute: pertsona guztientzako, auzo guztietarako eta etorkizun handiko jarduera ekonomiko lehiakor baterako Bilbo eraikitzen jarraitzea. Denok amets dugun Bilbo.

Joan den agintaldian, herri erakundeen, gizarte, kultura eta kirol erakundeen, enpresen, komunikabideen, ikastetxeen eta herritarren elkarlan prozesu baten bidez, guztion balio esparru bat zehaztu dugu Bilbon. 17 balio indibidual eta kolektibo. Guztiak ere, garrantzitsuak. Lehentasunezko ekintza hauekin bultzatu ere egin nahi ditugu balio horiek. Eta Plan honen funtsa ere badira balio horiek. Plan honekin Bilboko herritarren aurrean hartzen dugun konpromisoaren balioa bezala.

Jakina, Bilboko Udalaren jarduera lehentasunezko 100 ekintza hauek baino askoz harago doa. Egunero Udalaren sail eta erakunde bakoitzak ekintza asko egiten ditu Bilboko herritarren bizi kalitatea eta gure udalerriaren oparotasuna hobetzeko. Hala ere, lehentasunak jartzea egin beharreko ariketa bat dela ikusten dugu, herritarrek errazago kontrolatu ahal ditzaten Udalaren jarduera eta agintaldi berri honetarako geureganatzen ditugun konpromisoak.

Gutziz sinesten ditugu gardentasun eta kontu-emate printzipioak. Horregatik egin dugu ahalegin berezi bat konpromiso horiek ahalik eta gehien konkretatzen eta edozein pertsonak ulertzeko moduko hizkera erabiltzen. Eta horregatik emango ditugu kontuak etengabe www.bilbao.eus webgunearen eta beste kanal presentzialen bitartez Plan hau osatzen duten lehentasunezko 100 ekintzen aurrerabideaz. Bilboko herritar bakoitza aktore nagusi izan dadin, gure udalerriaren garapen iraunkorrean aurrera egiteko guztion proiektu honetan.

Juan Mari Aburto
Bilboko alkatea




1

- Eduki daukagun Bilbo eta gura dugun Bilbo. 2019-2023rako lehentasun estrategikoak



B
Bilbao



EDUKI DAUKAGUN BILBO


Konpromiso moduan hartzen ditugun lehentasunezko ekintza hauek gure hiriaren diagnostiko errealista batetik abiatzen dira. Hiri honek, zalantza barik, **berebiziko aurrerakuntza** izan du **azken hamarkadetan ekonomian, gizartean eta ingurumenean**.



Bilbok **irudi bikaina du, eraldatzen den eta modernizatzen jarraitzen duen hiriaren irudia**. Garrantzi handiko erakargarriak dauzkagu, eta horiek elkarlan instituzional eta publiko-pribatutik garatu eta aprobetxatuz gero, aukeraz beteriko hiri bat eratzen laguntzen jarrai dezakete pertsonentzat onuragarri bilaka daitezen.



Bilbok **gizarte zibil aberatsa** dauka. Elkarteei, fundazioei eta irabazi asmorik gabeko beste erakundeei esker, herritarrek gizarte bizitzan parte hartzeko bidea ematen baitute eta itzelezko kapital soziala baitira, Bilbo eraikitzen are gehiago inplikatu behar dena.



Bilbok **kalitatezko zerbitzu publikoak** eta **kudeatzeko esperientzia aitortua** dauzka, gaitasuna duen eta Bilbo hobe bat egiteko erronkan inplikaturik dagoen udal antolakundea oinarri duena.

Goraldi bat bizi badugu ere, **oraindik jasaten ari gara azken krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioak**. Krisiak gogor eragin zion gure ehun ekonomikoari eta krisiaren ondorioek langabezia handiagoa, egoera ahulean zeuden pertsonen kalitate txarragoko enplegua eta ordaintzeko moduko prezioan etxebizitza lortzeko edo bertan mantentzeko zailtasunak eragin zizkieten Bilboko herritarrei. Gizarte kohesioko elementuak dauzkagu (bai udalarenak bai beste herri erakundeen esparruetatik eskainiak, batzuk berariazkoak eta Euskadikoak bakarrik, esate baterako DBE), eta horri esker krisiaren ondorioak askoz motelagoak dira, baina funtsezkoa da gure gizarte zerbitzuen sistemaren kalitatea mantentzea eta hobetzen jarraitzea, eta egoera zail horren aurrean dauden pertsonen lan aukerak eta gizarteratzeko aukerak eskaintzea.

ERRONKA BERRIAK

Diagnostiko horrek aurrera doan eta aurrera joaten jarraitzen duen hiri baten marrazkia egiten digu, baina aldi berean **erronka handiei** aurre egin behar dien hiri batena.



Ekonomiaren eta enpleguaren erronkari, negozio berrien inbertsiorako hiri erakargarria eta ekonomiaren eragilea izateko lan egiten jarraitu behar dugulakao, enplegu egonkor eta kalitatezko gehiagorekin.



Gizartea gaztetzea bezalako erronkei, pertsona gazte gehiagok euren bizi proiektu pertsonal eta profesionala garatzeko Bilbo aukeratzea lortu behar dugulako.




Historia luzeena duten gure auzoetan **hiria gaztetzea** bezalako erronkei.



Munduaren klima larrialdiari aurre egiten jarraitzea bezalako erronkei.



Eta, batez ere, Bilbon gozamen ditugun **bizikidetza maila guztiz altua eta herritarren balioak** egunero mantentzen jarraitzeko erronkari.





GURA DUGUN BILBO.
DATOZEN URTEETARAKO
LEHENTASUNAK

Gure helburu nagusia **Bilbo eraikitzen** jarraitzea da, pertsona guztientzat, auzo guztietarako eta jarduera ekonomikoari begira.

BILBO GURA DUGU



Gero eta
kohesionatuagoa



Konpromisoa hartuta
iraunkortasunarekin



Bizi kalitatea duena
persona guztientzat



Balio sendo adostuak dituen,
batez ere gizon-emakumeen
arteko benetako
berdintasunaren balioa



Erakargarria
inbertsiorako eta
enplegua sortzeko



Kalitatezko zerbitzuak
dituen, auzo guztietara
heltzen direnak



Bilbao

10 HIRI PROIEKTU HANDI

Helburu horiek lortzeko, **gure hiriaren proiektu handietan** aurrera jarraitu behar dugu:

Zorrotzaurre, Ezagutzaren Uhartea.

Bilbo, unibertsitatearen hiria.

Bilbo, ekintzailetzaren hiria.

Bilbo, kulturaren hiriburua.

Merkataritzaren eta aisiaren dinamizazioa.


Gure konektagarritasuna hobetzea.

Segurtasunaren aldeko ituna.

Hiri mugikortasun iraunkorraren aldeko ituna.

Gizarte politiken aldeko ituna.

Auzoen aldeko ituna.



Gure Agintaldiko Plana Nazio Batuen 2030erako Agendaren eta honen Garapen Iraunkorreko Helburuen ildo-ildotik doa.

Bilbo beti izan delako hiri irekia, solidarioa eta konprometitua.

Datozen urteotan indartu gura dugun garapen iraunkorrarekiko konpromisoa.



Egin beharreko
ekintzekin Bilbok
**Garapen Iraunkorreko
17 Helburuak**
lortzen laguntzen du

2. Lehenasunezko 100 ekintza Bilbo eraikitzen jarraitzeko



Bilbao

10 ekintza ildo:

Lehentasunezko 100 ekintza Bilbo eraikitzen jarraitzeko

1. Jarduera
ekonomikoa
eta enplegua



16

ekintza

2. Gizarte
politikak



18

ekintza

3. Garraioa,
mugikortasuna eta
irisgarritasuna



10

ekintza

4. Gaztedia, balioak,
hezkuntza eta
prestakuntza



8

ekintza

5. Kultura eta
kirola



11

ekintza

6. Bizikidetza eta
segurtasuna



8

ekintza

7. Iraunkortasuna
eta hiri
eraldaketa



15

ekintza

8. Auzoen
garapena (*)



7

ekintza

9. Bilbo
euskalduna



3

ekintza

10. Gardentasuna,
parte hartzea,
zorroztasuna eta
kudeaketa ona



4

ekintza

(*) Oharra: Agintaldiko Plan honetan beste ekintza batzuk aurreikusita daude Planaren beste ardatz batzuetan txertatuta, baina zuzeneko eragina eta onura izango dute Bilboko auzoen hobekuntzan eta orekan.

Ondoren erakusten da Garapen Iraunkorreko Helburuetatik zeini laguntzen dion jarduera ildo bakoitzak.

JARDUERA ILDOA	OBJETIVOS DE DESARROLLO SOSTENIBLE																
	1 ER LA POBRTIA	2 ERREKUPERTATzea	3 SAlTErTIA eta BENEKTIA	4 ERREKUPERTATzea	5 ERREKUPERTATzea	6 ERREKUPERTATzea	7 ERREKUPERTATzea	8 ERREKUPERTATzea	9 ERREKUPERTATzea	10 ERREKUPERTATzea	11 ERREKUPERTATzea	12 ERREKUPERTATzea	13 ERREKUPERTATzea	14 ERREKUPERTATzea	15 ERREKUPERTATzea	16 ERREKUPERTATzea	17 ERREKUPERTATzea
 1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua			●		●			●	●	●	●	●				●	●
 2. Gizarte politikak	●	●	●	●	●	●				●	●					●	●
 3. Garraioa, mugikortasuna eta irisgarritasuna			●				●		●		●		●				●
 4. Gaztedia, balioak, hezkuntza eta prestakuntza			●	●				●								●	
 5. Kultura eta kirola			●	●				●			●						
 6. Bizikidetzeta eta segurtasuna					●					●	●					●	
 7. Iraunkortasuna eta hiri eraldaketa			●			●	●		●	●	●	●	●	●	●		●
 8. Auzoen garapena			●				●		●	●	●					●	●
 9. Bilbo euskalduna				●													
 10. Gardentasuna, parte hartzea, zorrozetasuna eta kudeaketa ona									●	●						●	

1. **Jarduera ekonomikoa eta enplegua**

- 1.1 Zorrotzaurre hiri barruti berritzailea. Hiri Parke Teknologikoaren lehen fasearen garapena
- 1.2 Industria 4.0 eta ekonomia digitalerako zerbitzu aurreratuen AS Fabrik zentroaren garapena
- 1.3 “Nagusi Intelligence Center” (NIC) abiaraztea
- 1.4 Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa, ekintzailetza aurreratuaren bikaintasun gunea izateko.
- 1.5 Big Bilbao finkatzea, tokiko ekintzailetzaren erreferentzia zerbitzu gisa
- 1.6 Bilbon enpresak kokatzeko eta enplegua sortzeko aukera leku berriak
- 1.7 Gizarte eta Elkartasun Ekonomiaren Erakargunea Bilbo Zaharrean martxan jartzea
- 1.8 Zazpikaleak merkataritza, kultura eta bizikidetzaren gune moduan garatzea
- 1.9 Tokiko Merkataritzaren Plan Osoa Bilboren merkataritza hiriburutasuna indartzeko
- 1.10 “Bilbao Smart City” estrategia bultzatzea eta osorik garatzea
- 1.11 Berrikuntza digitala bultzatzea turismoan, Bilbo helburu turistiko adimentsua bihurtzeko (BIOTIP)
- 1.12 Enplegu planak eta prestakuntza eta gaikuntza programak
- 1.13 Enplegu eskaintza publikoa urtero argitaratzea
- 1.14 Invest in Bilbao-Biscay: zerbitzuan sakontzea Bilbora enpresa berriak erakartzeko
- 1.15 Nazioarteko ekitaldiak ekartzea eta antolatzea bultzatzea
- 1.16 Bilboko portua eta aireportua



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

1.1 Zorrotzaurre hiri barruti berritzailea.

Hiri Parke
Teknologikoaren
lehen fasearen
garapena

Zorrotzaurre hiriaren aukeretakako eta etorkizunerako berebiziko lekua da, eta hainbat erabilera izango ditu. Bizitzeko, lanerako eta gozatzeko uharte bat izango da. Ildo horretan, uharte honen bereizgarrietako bat Hiri Parke Teknologiko bat eraikitzea izango da, eta osagai teknologikoko enpresak eta sormen eta berrikuntza maila handikoak, sektore estrategikoetakoak, sortu eta kokatzeko espazioak prestatuko dira bertan: Industriarako zerbitzu aurreratuak, ekonomia digitala eta kultura eta sorkuntza industriak.

Lehen fase honetan gobernantza, kudeaketa eta sustapen eredua landuko da, ezagutzazko eta teknologiazko enpresen eta eragileen ekosistema bat erakarri eta sortu ahal izateko. Hori guztia gainerako herri erakundeekin eta gure enpresa ehunaren eragile nagusiekin elkarlanean burutuko da.



1.2 Industria 4.0 eta ekonomia digitalerako zerbitzu aurreratu AS Fabrik zentroaren garapena

AS Fabrik Bilbao proiektuaren helburua bertoko enpresen lehiakortasuna hobetzea eta Zorrotzaurre prestakuntzaren ekosistema eta erreferentziako ekosistema gisa finkatzea da, erreferentzia, hain zuzen, Industria 4.0 eta ekonomia digitalerako zerbitzu aurreratuaren esparruan Bilbon.

Datozen urteetan aurrera jarraituko da proiektuaren 2. fasean, prestakuntza, ekintzailtza eta networking jarduerak eginaz Industria 4.0 inguruan, eta Bilbo eta Zorrotzaurre ezagutza gune, transferentzia gune eta sektoreko jardura ekonomiko berria sortzeko gune gisa kokatzeko. AS Fabrik, era berean, elementu nagusia izango da "Bilbo Unibertsitatearen eta Ezagutzaren Hiria" proiektuan beste prestakuntza proiektuekin batera, Digipen, esate baterako (bideo jokoekin zerikusia duen prestakuntza unibertsitarioa).



1.3 "Nagusi Intelligence Center" (NIC) abiaraztea

"Nagusi Intelligence Center (NIC)" hautu garrantzitsuetako bat da aurre egiteko zahartzearen eta "silver economy" deritzonaren erronkari eta aukerei. Proiektu honetan aurrera egiteko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta enpresa eta teknologia eragileekin, eta eragile akademikoekin egingo da lan, zentro berriaren ildo estrategikoak zehazten. Zentroaren egoitza Zorrotzaurreko Tarabusi eraikina izango da, eta izango duen helburua arlo honetako ezagutza sortzea eta zabaltzea izango da, eta aldi berean enpresak martxan jartzea bideratuko du eta sektoreko kualifikazio handiko enplegua sortuko du.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

1.4 Nazioarteko Ekintzailletza Zentroa, ekintzailletza aurreratuaren bikaintasun gunea izateko

Ekintzailletza ekinbideak sustatu eta laguntzeak hiriaren hautu ekonomiko handietako bat izaten jarraitzen du, eta agintaldi honetan, Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlanean, Nazioarteko Ekintzailletza Zentro bat ireki eta martxan jartzen islatuko da.

Zentro hori barne ekintzailletza eta start-up enpresen azelerazioa errazteko leku bezala ulertzen da, eta Bilbora eta Bizkaira muin teknologiko eta berritzaile handiko enpresa proiektuak, start-up enpresak eta korporazioak erakarriko ditu.

Era berean, hiria eta lurraldea nazioartean ekintzailletza berritzailean erreferentziazko erakargune gisa kokatzen lagunduko du, erreferentziazko nazioarteko ekosistemekin lotuz eta bertoko ekintzailletza ekosistema dinamizatuz.



1.5 Big Bilbao finkatzea, tokiko ekintzailletzaren erreferentzia zerbitzu gisa

Ekintzailletzaren kultura sustatzea eta ekintzailletza ekosistema bat sortzea, pertsona ekintzaileak ikuspegi oso batetik lagundu eta dinamizatuko dituen, funtsezko elementuak dira Bilboren posizioa finkatzeko, enpresa proiektu berriak abiarazteko lekurik egokiena bezala. Testuinguru honetan, Big Bilbao, ekintzailletza berritzaile eta oso bezala pentsatu da, eta bere lehen helburua hirian enpresa proiektu bat martxan jarri nahi duten pertsona guztientzako baliabideak eta ekintzak ekartzeko sarrerako atea izatea da.

Udalak Big Bilbao indartzen jarraitu nahi du, erreferentzia zentro moduan, 600 enpresa berri eta 900 lanpostu sortzen laguntzeko datozen urteetan. Horretarako zenbait ekintza egingo dira, besteak beste, nabarmenenak hauexek: Bilboren espezializazio sektorialaren estrategiari lotutako berariazko zerbitzuen ekite, sortze eta garatze proiektuen bizi zikloan behar guztiei erantzuteko zerbitzu eskaintza eguneratzea eta pertsona ekintzaile, enpresa, unibertsitate, kluster eta abarren komunitate digitalak garatzea.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

1.6 Bilbon enpresak kokatzeko eta enplegua sortzeko aukera leku berriak

Bilboko Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria taxutzerakoan, hiriaren aukera leku berriak identifikatzeko lana egiten ari gara, Bilbon enpresa berriak kokatuaz jarduera ekonomikoa sortu ahal izateko.

Fase berri honetan posizio hartzeko estrategiak, proiektuak eta ekintzak zehaztuko dira, ingurune horietan jarduera ekonomikoa garatzeko, eta enplegu aukerak sortzeari bidea emango zaio. Besteak beste, Zorrotzako Punta, Errekalde, Artxanda eta Abandorako (AHTaren ingurunea) estrategiak zehaztuko dira.



1.7 Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Erakargunea Bilbo Zaharrean martxan jartzea

Ekonomia Sozial eta Solidarioak (ESS) pertsonen beharrak asetzeari irabaziaren gainetik lehentasuna ematen dioten jarduera sozioekonomikoak hartzen ditu. Jarduera horien garapena indartu ahal izateko Bilbo Zaharrean Ekonomia Sozial eta Solidarioaren Erakargune bat abiaraziko da, horri buruzko zenbait ildo eta jarduera abian jartzeko.

Besteak beste, Erakarguneak ezagutarazi egingo ditu ESSk ekintzailetza eredu eta garapen ekonomiko eta sozialaren eredu gisa eskaintzen dituen aukerak eta abaguneak eta erraztu egingo du ekintzailetza sozial kooperatiboaren garapena, ideia sortzearen, abian jartzearen eta enpresa laguntzearen prozesuei lagunduz, helburu horretara egokitutako prestakuntzaren, orientazioaren eta planen bidez.



1.8 Zazpikaleak merkataritza, kultura eta bizikidetzaren gune moduan garatzea

Zazpikaleak, ezinbesteko lekua herritarren bizitzan eta Bilboren kanpo irudirako. Erreferentziazko espazio bat merkataritzarako, kulturarako, aisiarako, identitaterako eta bizikidetzarako, modu iraunkor eta orekatuan garatu behar dena, auzoko eta Bilboko ekonomia, gizarte eta auzo dinamikak integratuaz.

Horretarako, "Bilboko Zazpikaleak garatzeko 2015-2019rako Estrategia" ebaluatu eta eguneratuko da, eta 2020-2023rako Ekintza Plan berria zehaztuko da zutabe hauen inguruan: Zazpikaleen identitatea sendotzea, Zazpikaleen merkataritza ereduak garatzea, turismo iraunkor eta orekatua sustatzea, eta Zazpikaleetan dauden erabilera guztien bizikidetzaren eta oreka finkatzea.





1.9 Tokiko Merkataritzaren Plan Osoa Bilboren merkataritza hiriburutasuna indartzeko

Bertoko merkataritza laguntza osoa emateak jarraitu egiten du hiriaren hautu bat izaten bere lehiakortasuna hobetzeko eta kontsumo eredu berrietara hobeto egokitzeko, Bilboren erakarmena indartuaz merkataritza hiriburu gisa eragin eremu globalean (“Bilbo 90 minutu”).

Horretarako, udal zerbitzuak birdiseinatzen egingo da lan bertoko merkataritza lehiakorragoa izan ahal dadin, digitalizatua eta berritzailea bere kudeaketa ereduetan eta bezeroaren esperientzian. Horrek kontsumitzaileen portaera ezagutzeko plataforma digital bat diseinatzea barne hartuko du, kontsumitzaileak profilen arabera karakterizatuaz, eta horri esker marketin tresnak diseinatu ahal izango dira lotura handiagoa izateko denden eta bertoko kontsumitzaileen artean.

Era berean, planaren bitartez saltokien identitateari garrantzia ematea landuko da eta “Bilbo, Merkataritza, Kultura eta Aisiaren Hiria” proiektua martxan jarriko da hiriaren posizioa sendotzeko, gure erreferentzia inguruneko merkataritza hiriburu gisa.



1.10 “Bilbao Smart City” estrategia bultzatzea eta osorik garatzea

Bilbok ibilbide bat egingo du hiriaren digitalizazio estrategian, herritarrek “aro digitalean jaiotakoak” izatera egin duten profil aldaketaren parean egon daitekeen hiri adimentsuaren hautua eginaz.

Ildo horretan, hiri adimentsuaren erronka handietarako konponbideak bilatzen dituzten proiektu konkretuak garatzea dago aurreikusita, udal zerbitzuak hobetuko dituzten eta Udalari berari datuen analisi aurreratua (Big Data) aplikatzen lagunduko dioten konponbideak eta eredu teknologikoak apurka-apurka aplikatuaz, bilbotarren bizi kalitatea hobetzeko.

Konponbide teknologiko berriak batez ere adimen artifizialaren, sentorizazioaren, denbora errealeko kontrol sistemen, 5G komunikazioen eta irudi analisi aurreratueterako gailuen arloekin egongo dira erlazionatuta.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

1.11 Berrikuntza digitala bultzatzea turismoan, Bilbo helburu turistiko adimentsua bihurtzeko (BIOTIP)

Teknologia berrien indarra turismora igaroko da Bilbo helburu turistiko adimentsua bihurtzeko eta esperientzia turistikoa hobetzeko. Adimen artifizialean oinarrituz “hiri esperientzia” hobetuko duen eta produktuak eta zerbitzuak modu pertsonalizatuan eskainiko dituen plataforma bat garatzea izango da horren emaitza (BIOTIP Europako proiektua).

Turistak eta egoiliarak laguntzaile birtual batez hornitzea da helburua, hirian lagundu diezaion eta gida ditzan. Laguntzaile horrek modu pertsonalizatuan bistaratu eta iradokiko du gure eskaintza turistikoa, eta, gainera, turismoaren dinamikak bertoko merkataritzarenetara hurbilduko dituzten moduluak edukiko ditu txertatuta, sektore honen garapenari mesede egiteko.



1.12 Enplegu planak eta prestakuntza eta gaikuntza programak

Kalitatezko enplegurako aukerak sortuaz lan munduratzeari bultzatzearekin konpromisoa hartu jarraitzen du Udalak; horretarako, lanpostua aurkitzeko zailtasun handienak dituzten pertsonen orientaturiko programak lagunduz.

Ilde horretan, enplegu planak eta esperientziatzeko beste programa batzuk garatuko dira Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin eta beste eragileekin elkarlanean, Bilboko 3.000 langaberi baino gehiagori zuzeneko enplegu aukerak ematera zuzenduta, lan munduan txertatzeko zailtasun handienak dituzten taldeei arreta berezia eginaz. Horretarako, pertsona horiek kontratatu eta gaitzeko ekinbide konkretuak abiaraziko dira, hiriaren proiektu estrategikoei lotutako enplegu aukerak aprobetxatu ahal ditzaten.



**1.13 Enplegu eskaintza publikoa urtero argitaratzea**

Udal langileria egokia izatea, kopuruz eta lanbide eskakizunez, funtsezkoa da kalitatezko udal zerbitzuen prestazioa bermatzeko. Horregatik, Udala udal zerbitzuetako pertsonalaren berrazterketa egiten ari da, indartze beharrak identifikatzeko eta horien estaldurari erantzuna emateko.

Udalak urtero onartu eta argitaratuko du bere lan eskaintza publikoa, udaletxean hutsik dauden lanpostuak barne sustapenez eta txanda librean betetzeko, eta, lanpostu berriak sortzen badira, horiek ere betetzeko. Aniztasun funtzionala, bai fisikoa bai psikologikoa, duten pertsonak hartzea bultzatuko da, eta laneratzeko deialdiak euren beharretara egokituko dira, aukera berdintasuna bermatzeko. Zabalkunderik handiena emango zaio, bai komunikabideetan bai udalaren webgunean. Horrek guztiak ekarriko duena da pertsona berriak sartzea enplegu egonkor eta kalitatezkoan.

**1.14 Invest in Bilbao-Biscay: zerbitzuan sakontzea Bilbora enpresa berriak erakartzeko**

“Invest in Bilbao-Biscay” Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak elkarrekin ezarri duten estrategia bateratua da, hirian enplegua sortzera eta tokiko eta lurraldeko garapen ekonomikoa sustatzera balio erantsi handiko inbertsioak eta enpresa proiektuak erakartzeko egina.

Agintaldi honetan enpresa berriak erakartzeko zerbitzuan sakonduko da. Inbertsiorako eta enpresak abiarazteko leku gisa hiriak eta lurraldeak duen balio proposamenaren xehetasunak taxutzea eta zerbitzu publikoak, merkaturatze planak eta komunikazio eta marketin digitaleko estrategiak karakterizatzea izango dira garatuko diren zereginak. Misio hori bete ahal izateko, herri erakundeek elkarlanaz gain, aliantzak egingo dira berton erreferentzia diren korporazio eta erakundeekin.

Nazioarteko harremanetan ere sakonduko da, ordezkaritzetan presentzia handituaz eta azoketara sarriagotan joanaz.



**1.15 Nazioarteko ekitaldiak ekartzea eta antolatzea bultzatzea**

Udalak etengabe egiten du lan Bilbora modu iraunkorrean nazioarteko ekitaldiak behin betiko erakartzeko, hain zuzen, helburu bi betetzen dituzten ekitaldiak: hirian kultura eta aisia jarduerak sortu eta ezagutza erakartzea eta aberastasuna eta enplegua sortzea.

Datozen urteetarako nazioarteko ekitaldiak erakartzeko estrategia zehaztuko da, eta berariazko ekintza plan baten bidez gauzatuko da. Lehenengo eta behin, ekitaldiei lotutako oraingo jardueraren diagnosikoa landuko da eta arlo horretan lortu beharreko helburu konkrituak ezarriko dira. Horrek aukera emango du Bilbora modu hautatuan zelako ekitaldi mota erakarri gura den zehazteko, eta ekonomiaren, gizartearen, ingurumenaren eta hiriaren ikuspegi oso batetik ekitaldien inpaktua neurtzeko metodologia batean oinarrituta zehaztu, gainera.

Estrategia zehaztutakoan, helburutzat markatutako ekitaldiak erakartzeko ekintza konkrituak zehaztuko dira. Gainera, ekitaldiak osorik (sustapena, segurtasuna...) kudeatzeko tresna bat zehaztu eta aplikatuko da.

**1.16 Bilboko portua eta aireportua**

Hirien lehiakortasuna erabakitzen duen faktore nagusietako bat konektagarritasuna da. Bilboko Udalak badaki hiri faktoreak zenbaterainoko garrantzi handia duen ildo horretan eta horregatik, udalaren eskumeneko arlo bat ez bada ere, herri erakundeen elkarlanaren bitartez Bilboren eta gure eragimena heltzen den ingurunearen aireko eta portuko konektagarritasunaren hobekuntza bultzatu gura dugu. Besteak beste, aireko ibilbide berriak eta bai aireportuan bai portuan operatzen duten eragileak erakartzea landuko da, eta hiriaren eta ekipamendu estrategiko horien arteko lotura hobetzen ere lan egingo da.



2. Gizarte politikak

- 2.1 Adineko pertsonen arretarako eguneko zentroa
- 2.2 Pertsona zaintzaileentzako atsedeen zerbitzua
- 2.3 Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arretarako eguneko zentroa
- 2.4 Gurasotasun positiboaren programa
- 2.5 Gizarte larrialdian dauden Bilboko pertsona guztiei laguntzea
- 2.6 Haurtzaroko eta Nerabezaroko hiri laguna
- 2.7 Adinekoekin hiri laguna
- 2.8 “Begirada Aktiboa” programa
- 2.9. Gizarte politiken aldeko ituna.
- 2.10 Emakumeen ahalduntzea eta parte-hartze soziopolitikoa sustatzea
- 2.11 Bikaintasuna genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan
- 2.12 Gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzeko lantegiak
- 2.13 Aniztasun sexualaren aldeko politikak
- 2.14 Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. udal Plana
- 2.15 Etxebizitzaren gidaplan berria
- 2.16 Udalaren I. Osasun Plana
- 2.17 Mendekotasunen ondorioak minimizatzeko plan berria
- 2.18 Garapenerako lankidetzaren gidaplan berria



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

2.1 Adineko pertsonen arretarako eguneko zentroa

Bilbok zahartze aktiboaren aldeko hautua egiten jarraitzen du, adineko pertsonen mendekotasunari laguntza ematen zenbait neurriren bitartez, esate baterako, mendekotasun moderatua duten pertsonentzako (1. mailako mendekotasuna) hurbileko zerbitzuak. Honelako neurriak adineko pertsonak euren ingurunean egotea bultzatzera zuzenduta daude, euren autonomia mantenduaz eta eurak gizarteratzea erraztuaz, bakartzea eta bakardadea saihesteko.

Agintaldi honetan mendekotasun moderatua duten pertsonentzako eguneko arretarako zentro bat martxan jartzea dago aurreikusita, eta horrek 50 postu sortuko ditu. Zentroa ireki aurretik, dauden beharrak berriro aztertuko dira, eta udalerrian izan litezkeen kokapen posibleak identifikatuko dira, bai eta zerbitzua diseinatzeko dauden aukerak ere.



2.2 Pertsona zaintzaileentzako atsedeen zerbitzua

Atsedeen hartzeko zerbitzua pertsona zaintzaileei asteburuan astialdiaz gozatu ahal dezaten zaintze gabeko denbora eskaintzeko neurri bat da. Horretarako beharrezkoa da euren zaintzapean dituzten adineko pertsonentzat aldi baterako ostalua izan ahal izatea.

Horretarako beharrezkoa da Udalak honelako zerbitzuak indartu gura ditu pertsona zaintzaileen ongizatea hobetzeko neurri moduan eta horretarako honelako atsedeen mota eskainiko duen udal zerbitzu bat sortzea dauka aurreikusita.



2.3 Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arretarako eguneko zentroa

Bazterkeria arriskuan dauden pertsonen lehentasunezko talde bat izaten jarraitzen dute, euren behar eta eskari bereziekin, eta Udalak eurentzako arreta neurriak indartu gura ditu hurbileko zerbitzuak sustatuaz. Actualmente este colectivo recibe una atención de urgencia errakundeekin elkarlanean, eta euren eskura jartzen ditu espazioak eta instalazioak, pertsonak aterpea, garbitzeko aukera eta egunez jatekoa izan ahal dezaten. Gainera, informazioa ematen zaie euren eskubideez eta jaso ditzaketan baliabideez.

Agintaldi honetan, Bilbok aurreikusita dauka zerbitzu hauek indartzea bazterkeria arriskuan dauden pertsonentzat eguneko arreta zentro bat irekiaz. Esperientzia pilotu moduan planteatuko da eta 30 postu sortzea ekarriko du. Zentroa ireki aurretik gaur egun erabilgarri dauden postuen mapa berraztertuko da eta izan litezkeen kokapenak identifikatuko dira fase horretan.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

2.4 Gurasotasun positiboaren programa

Gurasotasun positiboa familientzako elementu erraztasun-emaile eta lagungarri bat da euren seme-alabak zaindu, hazi eta hezteko. Udalak neurriak sendotu nahi ditu arlo honetan prebentzioaren eta umeen babesgabetasun egoerak detektatu eta artatzearen ikuspegitik.

Horretarako, gurasotasun positiboaren berariazko programa bat diseinatzea dago aurreikusita, guraso gaitasunak hainbat arrazoigatik gutxituta sumatzen dituzten familiei behar duten laguntza eskaintzeko, eta gaitasun horiek eurenganatzeko ikaskuntza eta laguntasuna ere emateko. Laguntza jarduerak banakakoak nahiz taldekoak izan ahal izango dira.



2.5 Gizarte larrialdian dauden Bilboko pertsona guztiei laguntzea

Gizarte larrialdiko laguntzak funtsezkoak dira pertsonen oinarrizko behar pertsonalak (aloyer gastuak, hornidurak, komunitatea...) asetzeko, egoera ahul jakin batean daudenean, eta batez beste urtean 6.000 familia dira horrelako laguntzak jasotzen dituztenak Bilbon.

Eusko Jaurlaritzak darabilen aurrekontua ez da nahikoa Bilboko Udalaren gizarte zerbitzuetan jasotzen diren eskaerei erantzun ahal izateko. Horregatik, eskakizunak betetzen dituzten eskaera guztiei estaldura ematea bermatzeko konpromisoa hartzen du Udalak, Eusko Jaurlaritzak ematen duen kopurua agintaldi honetan udal aurrekontuaren bidez osatuz.



2.6 Haurtzaroko eta Nerabezaroko hiri laguna

Bilbok UNICEFen aitortpena lortu du 2019an "Hurrekin Adiskidetsua den Hiria" delako, eta "Ume eta Nerabeen Udal Plana" landu du datozen urteotan neurri zehatzak garatzeko.

Udal politikagintzan parte hartzea zein garrantzitsua den kontuan hartua, Haurtzaroko eta Nerabezaroko Kontseilua eratu da, neskatoen, mutikoen eta nerabeen parte-hartzea artikulatzeko, eta espazio bat aitortu zaie hitz egin dezaten eta ideiak proposa ditzaten.

Kontseiluak 45 ordezkari ditu, udalerriko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako neska-mutilak. Agintaldi honetan Kontseilua bultzatu nahi da eta ikusgaitasun handiagoa eman gura diogu, ikastetxeetara hurbilduaz eta talde honi eragiten dioten gaietan ikastetxekoek parte hartzea bultzatuaz.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

2.7 Adinekoekin hiri laguna

Bilbok “Adinekoekin hiri laguna” aitortpena jaso du eta ibilbide luzea du egina arlo honetan; horrek isla izan du adineko pertsonen behar eta eskariei erantzuna emateko berriarazko neurriak jasotzen dituzten planak lantzerakoan.

Bere bigarren planaren barruan oinarritu da lantalde baten sorrera formala (Talde Eragilea), 25 adinekoek osatua, adineko pertsonen parte-hartzea indartzeko eta zeharretara udal politiketan eragiteko, adinaren eta generoaren ikuspegia emanaz.

Datozen urteotan Talde Eragilea indartu eta sendotu nahi da zenbait ekinbide gauzatuaz, besteak beste, parte-hartzaileak prestatzea eta udal sail eta enpresek egiten dutenaren ezagutaraztea. Hori guztia, Taldea gaitzea helburu hartuta, behar diren analisiak egiteko eta udal politikei adinaren ikuspegitik ekimena gehitzeko. Taldeak adineko pertsonen oraingo plana ebaluatzen parte hartzea ere aurreikusten da, bai eta hurrengo plana lantzen parte hartzea ere.



2.8 “Begirada Aktiboa” programa

“Begirada Aktiboa” bakarrik bizi diren eta laguntza sarerik ez duten adineko pertsonen bakartze eta bakardade egoerak prebentzio moduan identifikatu eta detektatzeko programa bat da.

Horren irismena zabaltzeko, hainbat ekintza egiteko asmoa dago, adineko pertsonen elkarten eta boluntarioen elkarlanari esker. Horretarako, 80 urte baino gehiagoko adineko pertsonetatik bakarrik bizi direnak detektatzeari bultzada emango zaio etxeetara bisita eginaz, eta hor emango zaie jaso ditzaketen baliabideen eta laguntzen berri. Era berean, herritarrei informazioa emateko kanpainak egingo dira programaren zabalkundea eta ezagutza handitzeko. Beste alde batetik, berriaz bultzatuko da “Nagusi Kafegunean” ekinbidea, horren bitartez harreman sare aktibo bat sortu nahi baita auzoen barruan, adineko pertsonen elkarteetan kafe bat hartzeko hitzordua eginaz. Badabil Santutxun, San Frantziskon eta Deustu-San Ignazio eta Udaleko 8 barrutietara zabalduta nahi da.



**2.9. Gizarte politiken
aldeko ituna**

Gizarte politiken aldeko itunak herritarren gizarte eskubideak egikaritzeko ingurune egokia bultzatzeko Udalak duen konpromisoa erakusten du, eta 46 neurri konkretu zehaztu ditu laguntzarik handiena behar duten pertsonen bizi kalitatea hobetzeko. Aurreikusitako 46 neurriek askotariko ekintza konketuak hartzen dituzte, eta Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren elkarlanarekin egin dira.

Itunak biztanleria orokorrera zuzendutako neurriak eta talde espezifikotara zuzendutakoak ditu, besteak beste, umeak eta familia eta gizartetik baztertzeko eta pobrezian jausteko arriskuan dauden pertsonak. Ildo horretan, begiz jota dauka, besteak beste, oinarritzko gizarte zerbitzuetako eta zerbitzu zentraletako profesional kopurua handitzea, Etxeko Laguntza Zerbitzua eta Pertsona Zaintzaileei Laguntzeko Zerbitzua hobetzea, eskola eremuan eta gurasotasun positiboan hezkuntza esku-hartze soziala bultzatzea eta, kontrol egoki bat eginaz, Gizarte Larrialdiko Laguntzak jasotzen direla bermatzea.

Beste alde batetik, itunak neurri konketuak jasotzen ditu emakumeen aurkako indarkeria matxistaren eremuan, besteak beste, gizarteko eta komunitateko eragileak sentsibilizatzea, indarkeria matxistako egoerei aurrea hartzeko eta “zero tolerantzia” indartzeko. Halaber, kulturartekotasuna sustatu nahi da “Zurumurrueen aurkako” estrategia zabaldiaz eta pertsona iheslarien ardura duten eragileekin elkarlana handituz.

**2.10 Emakumeen
ahalduntzea eta
parte-hartze
soziopolitikoa
sustatzea**

Udalak emakumeen parte-hartze eta solaskidetza soziopolitikoa bultzatu gura du parte hartzeko espazio eta egiturak indartuz eta emakumeen eta feminismoaren elkar mugimenduaren inplikazioa sustatuz.

Agintaldi honetan mugimendu feministentzat, emakumeen elkarreentzat, beste emakume talde batzuentzat eta tokiko administrazioarentzat egitura malgu bat eta espazio berriak sortzea erabaki da. Helburua parte-hartze estrategia bateratuak egituratzea da, Bilbon emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna zailtzen duten oztopoak ezabatzeko bidean, ekintza politikak edo zerbitzu prestazioak bultzatzen lagunduko dutenak.





2.11 Bikaintasuna genero indarkeriaren biktima diren emakumeen arretan

Genero indarkeria jasaten duten emakumeen arretan bikainak izatea Udalaren konpromiso bat da, eta horretarako arreta osoa ematen duen zerbitzu bata dauka, ekintza urgentea, pertsonala, jarraitua eta espezializatua bermatzen diena egoera horretan dauden emakumeei.

Datozen urteotan urrats bat gehiago eman gura dugu emakumeen errealitateen eta beharren aniztasuna identifikatzea errazteko bidean, eskaintzen den zerbitzua hobetzen jarraitze aldera eta egoera horretan egon litezkeen talde guztietara heltze aldera.

Denbora bitarte honetan, eta gizon-emakumeen berdintasunerako udal ordenantza berrian ezarritakoari jarraituaz, interseksionalitatea erantsiko da, desberdintasun egoera ikusgai egiten, aztertzen eta hartan esku hartzen laguntzen duen tresna bat delako, sexu eta funtzio aniztasuna eta bizi zikloa kontuan hartuaz informazio bereizia ematen duena.

5 IGUALDAD DE GÉNERO



2.12 Gazteen artean indarkeria matxistari aurrea hartzeko lantegiak

Genero berdintasunerako kultura sortzen duten balioak eta jarrerak sustatzen, bizitzako lehen etapetatik egin behar da lan, kontzientzia eta jarrera kritikoa bultzatuaz maskulinitasunaren eta femininitasunaren ereduen inguruan eta harreman afektibo-sexualaren ereduen gainean modu normalizatuan eguneroko bizitzan.

Illo horretan, Udalak gazteen artean berdintasunezko harreman ereduen garapena bultzatu nahi du hezkuntzaren arloan "Indarkeria Matxistaren Prebentziorako Programa" berrindartuaz. Programak ikasleei zuzendutako prestakuntza lantegiak eta irakasleei eta familiei zuzendutako informazio elkarrizketak antolatzea aurreikusten du. Datozen urteotan ikastetxeetako parte-hartzea handitu nahi da, arautu gabeko prestakuntza ematen duten ikastegiak ere sartuaz.

5 IGUALDAD DE GÉNERO



**2.13 Aniztasun
sexualaren aldeko
politikak**

Bilboko Udalak tolerantzia eta aniztasun sexualaren alde herritarrengan kontzientzia sortzeko konpromisoarekin jarraitzen du, gizartean ikusgai egiteko zeregina hartuaz eta sexu orientazioagatik eta genero identitateagatik bereizkeria baztertzeko eginkizuna beteaz.

Horretarako, sexu aniztasunaren aldeko eta homofobiaren aurkako sentsibilizazio kanpaina berriak eta LGBTQ taldearentzat berariazko neurriak abiaraziko dira. Gainera Sexu Aniztasunerako Foro bat jarriko da martxan udalerriko LGBTQ mugimenduarekin batera, eta talde honekiko gizarte solaskidetzarako organoa bilakatuko da, sexu aniztasunaren aldeko politikak aplikatzea errazteko.

**2.14 Emakumeen eta
Gizonen
Berdintasunerako
V. udal Plana**

Udal ibilbideak, berdintasunaren esparruan, gizon-emakumeen berdintasunerako zenbait plan garatzea eta egikaritzea izan du oinarri, eta arlo honetako lehen udal ordenantza onartzea ere bai. Tresna hauen helburu komuna gizarte eta genero bereizkeriak eta desberdintasunak sortzen eta birsortzen dituzten egiturak baztertzeko laguntzea eta Bilbon emakumeenganako indarkeriaren kausak eta ondorioak ezabatzen laguntzea da.

Ibilbide honekin jarraituaz, Bilboko Udalak, Bilboko Berdintasun Kontseiluaren, mugimendu feministen, emakumeen elkartearen, beste emakume talde batzuen eta kontseilu sektorialen partaidetzarekin, "Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Udal Plan" berri bat landuko du, V. Plana izango dena, eta Berdintasunerako Udal Ordenantza onartuaz bereganatu zituen konpromisoak beteko ditu.



**2.15 Etxebizitzaren
Gidaplan berria**

Urte hauetan Bilboko Udalak hausnarketa eta diagnostikoa lantzen ibili da Bilbon etxebizitzak duen egoeraren gainean, jardun behar den funtsezko gaiak identifikatzen (zaharberritzea, kudeaketa, eduki ahal izatea eta abar) eta etxebizitzarekin erlazionatutako erronkei erantzuna emateko politikak garatzen.

Datozen urteotan, arlo honetan aurrera egiten jarraituko da, "Etxebizitzaren Gidaplan" berri bat abiaraziaz, etxebizitza politikak 2023ra begira gidatzeko. Plan berriaren funtsak etxebizitza ondarean bertan ekitea (eraikuntza berriak, zaharberritzea, kudeaketa...), etxebizitza hutsa mugiarazteari buruzko politika berriak egitea eta etxebizitza izateko eredu berriak eta laguntzak ezartzea izango dira. Ildo horretan, auzoen arteko oreka bilatzea azpimarratuko da, gizarte etxebizitza ahalik eta auzo gehienetara hedatuaz.

**2.16 Udalaren I. Osasun
Plana**

Bilboko Udalak Bilboko biztanleriaren osasuna hobetzen lagundu eta horri lotutako gizarte desberdintasunak gutxitu gura ditu, udal politikak eta zerbitzuak diseinatuaz. Horretarako, udal politika guztietan osasunaren ikuspegia eranstea bultzatuko da, zeharretara lantzen den gai bat izan dadin sail bakoitzean lantzen diren ekintza guztietan.

Udaletxean osasuna zeharretara eransten laguntzeko tresna lehenengo "Udalaren Osasun Plana" zehaztu eta martxan jartzea izango da. Planak ekintza orokorrak jasoko ditu, beharren duten auzoetara eta egoera ahulenean dagoen biztanleriara zuzendutako beste berariazko ekintzekin batera.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

2.17 Mendekotasunen ondorioak minimizatzeko plan berria

Bilboko Udalak zenbait ekinbide eta proiektu jarri ditu martxan azken urteotan gure hirian droga kontsumoa minimizatzera zuzenduta, eta berariazko ekintza planen bidez gauzatu dira.

Droga kontsumoaren eta substantziarik gabeko beste jokabide menderatzaileen prebentzioan aurrera jarraitzeko asmoz, eta jokabide menderatzaileen ondorio kaltegarriak gutxitzeko helburuz, beste plan bat abiaraziko da egoera ahulenean dauden pertsonak eta biztanle taldeak bereziki artatzeko. Mendekotasunak orain Bilbon zein egoeratan dauden jakiteko, Planak hasieran diagnostiko berri bat egingo du, eta zati handi batean parte hartuz egingo da, arazo hauek jasaten dituzten pertsonak artatzen eta horren prebentzioan adituak diren erakundeek ekarpenak kontuan hartuko baititu.



2.18 Garapenerako lankidetzaren gidaplan berria

Bilboko Udalak beti frogatu izan du konpromisoa hartua duela hegoaldeko herrialderik txirotuenen garapenarekin, ardurakidetasunaren ikuspegitik eta herritartasun globalaren kontzeptutik abiatuta, gizarte batzuen ahultasunak beste batzuen ongizate mailarekin lotzen dituelako.

2020an amaitzen da orain indarrean dagoen Garapenerako Lankidetzaren Gidaplana, eta horregatik landuko da plan berri bat, garapenerako lankidetzaren arloan udalak izango duen politikaren ekintza ildo nagusiak modu sistematiko, koherente eta gardenean jasoko dituen datozen urteotarako, eta hori burutzeko estrategiak, prozedurak eta baliabideak ere jasoko ditu. "Garapenerako Lankidetzaren Gidaplan" berriak nazioarteko lankidetzaren, sentsibilizazio eta laguntza humanitarioan egin beharreko ekintzak jasoko dituzten garapenerako lankidetzaren arloko udal politika publiko guztiak hartuko ditu kontuan.



3. Garraioa, mugikortasuna eta irisgarritasuna

3.1 Bilbo Intermodala

3.2 Tranbiaren sarea hedatzea

3.3 Hegoaldeko auzoak hiriaren erdialdearekin lotzeko burdinbidezko konponbide bat garatzea

3.4 Hirian bizikletaren erabilera erakargarri egitea

3.5 Bizikleta zidorren sarea handitzea

3.6 TAO eremu berriak aztertzea eta, kasua bada, handitzea

3.7 Argindarrezko ibilgailuaren erabilera erakargarri egitea

3.8 Aparkalekuen eta aparkaldien ordenantza berria

3.9 Mugikortasun ordenantza berria

3.10 BilboBus autobusak berritzea ibilgailu elektriko eta hibrido berriak hartuaz



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

3.1 Bilbo Intermodala

Autobus geltoki berria, Bilbo Intermodala, hiriberritze eta eraldaketa proiektu baten zati bat da, eta proiektu horrek geltoki berria eraikitzea eta ingurunea antolatzeke eta urbanizatzeko zenbait obra egitea aurreikusten du. Proiektuak bere osotasunean autobusen zirkulazioa antolatu eta hobetuko du, horren inpaktua txikituko du eta hirirako beste atseden leku bat sortuko du.

Lehen fasean geltoki berria lurperatu da eta geltoki berria eraiki da; joan den azaroaren 27an inauguratu zen. Bigarren fasea hurrengo urtean burutuko da; funtsean, lurperatu ondoren libre geratu den espazioan 7.500 m²-ko plaza bat sortuko da eta merkataritza eremu bat, kirolgune bat, hotel bat eta ikasleen egoitza bat hartuko dituen eraikin bat eraikiko da.



3.2 Tranbiaren sarea hedatzea

Bilbo hiri aurreratua da hiri mugikortasun iraunkorrean, horretarako zenbait elementuren gainean hobekuntza neurriak hartzen jarraitzen baita, besteak beste, garraio publikoan eta, zehazki, tranbian.

Datozen urteotan tranbiaren sarea handitzen jarraitzea aurreikusten da, eta bide zati hauetara hedatuko da:

- Bolueta eta Ibaizabal Abusu hiriaren erdialdearekin lotzea
- Erdialdea Zorrotzaurrearekin lotzearen zehaztapena.



3.3 Hegoaldeko auzoak hiriaren erdialdearekin lotzeko burdinbidezko konponbide bat garatzea

Auzoen konektagarritasuna hobetzeak Udalaren konpromisoetako bat izaten jarraitzen du "Bilbo Hiri Konektatua" proiektuaren esparruan, eta proiektu horrek berariazko neurriak ezarrita dauzka agintaldi honetan hegoaldeko auzoetarako (Irala eta Errekalde). Neurri horiei esker, aldi berean, hiriko auzo guztien garapen kohesionatu eta orekatua lortuko da.

Ildo horretan, auzo horiek hiriaren erdialdearekin lotzea erraztuko duen burdinbidezko konponbide berri bat diseinatzea aurreikusita dago, eta horretarako Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren elkarlana izango dugu.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

3.4 Hirian bizikletaren erabilera erakargarri egitea

Bilboko Udalak bultzatu dituen politikei esker, besteak beste, bizikletak mailegatzeko udal zerbitzuari esker, mugitzeko modu alternatibo eta iraunkor gisa asko areagotu da gure hirian azken urteotan bizikletaren erabilera. Zalantzarik gabe asko aurreratu den arren, Bilboko Udalak bizikletaren erabilera bultzatzen jarraitu nahi du.

Horretarako, aurreikusita daude zenbait ekintza, besteak beste, jatorrian eta helmugan bizikletetarako aparkaleku berriak sortzea, azpiegitura sarea handitzea, bizikleta erabiltzearen onurei buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea, ziklologistika proiektu bat abiaraztea eta bizikleten aparkaleku seguruen sare bat sortzea.



3.5 Bizikleta zidorren sarea handitzea

Bizikleta finkatu eginda lehentasunezko garraiobide gisa hirian. Aisiarako erabiltzeaz gain, gero eta gehiago erabiltzen du jendeak beribilaren edo beste garraio mota batzuen ordez.

2019an bizikleta zidorren sarearen kalitatezko, funtzionaltasunezko eta hierarkiazko irizpideak ezarri ondoren (50 km/h-ko zirkulazio abiadura duten bide zatietan bide zati bereiziak, bide zati konpartituak), datozen urteotan egokitu egingo da dagoen sarea irizpide horietara, eta aurrera egingo dugu bizikleta zidor sarea eraikitzen, helburu batekin: 2023an guztira 80 km-ko zidor sarea (bereizia eta konpartitua) edukitzea txirringaz ibiltzeko.



3.6 TAO eremu berriak aztertzea eta, kasua bada, handitzea

Bilboko kaleetan aparkaleku eskaera handia denez bai egoiliarren bai bisitarien aldetik, bide publikoko aparkatokiak hartarako bereziki egindako udal ordenantza baten bidez eta Bilboko kale jakin batzuetan aparkaldia kontrolatu eta antolatzeako kontzesiozko zerbitzu bat ezarriaz arautzen du, oreka bilatuaz auzokoen aparkatzeko beharren eta eskura dauden aparkatokiak gidarien artean banatu ahal izateko behar den nahitaezko ibilgailu txandakatzearen artean.

Datozen urteotara begira, TAO aparkatzeko arazo larriagoak eta eskaera handiagoa dagoen beste leku batzuetara zabaltzea komeni den pentsatuko da. Kasu guztietan, parte hartzeko eta herritarrek kontrastatzeko prozesuak bultzatuko dira barruti kontseiluen bitartez, tartean diren talde guztien iritzia eta proposamenak jaso ahal izateko.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

3.7 Argindarrezko ibilgailuaren erabilera erakargarri egitea

Bilboko Udalak mugikortasuna karbonogabetzea bultzatzen du, ibilgailu elektrikoaren erabilera sustatuaz. Horrek airearen kalitatea hobetzen eta, beraz, kutsaduraren efektuen mende gutxiagodaudez, Bilboko biztanleen osasuna hobetzen laguntzeaz gain, kutsadura akustikoa gutxitzen eta, beraz, horri lotutako gaixotasunak gutxitzen ere laguntzen du.

Helburu horretan aurrera egiten jarraitze aldera, elektrolineak jartzeko plan bat garatuko da eta udal aparkalekuetan birkargatzeko puntuak instalatzea bultzatuko da.

Era berean, Bbilborako birkargatze “zerbitzu/negozio/kontzesio eredu” egokiena zein den erabakiko da, birkargatzeko puntuen oraingo hitzarmena 2021ean amaitzen denean. Horretarako, beste hirietan erabiltzen diren kudeaketa eredu guztiak aztertuko dira. Azterketak argindarrezko ibilgailuetarako birkarga puntuen azpiegitura ere zehaztuko du, nahikoa izan dadin eta herritarren eskaera aurreikuspenari egokituta egon dadin, bai lurrazalean bai sestra azpian.



3.8 Aparkalekuen eta aparkaldien ordenantza berria

Gaur egun udal ordenantza batek baino gehiagok arautzen dituzte hiriko aparkalekuak eta aparkaldiak: Trafiko eta Aparkamendu Ordenantza; Egoiliarrentzako Udal Titularitateko Aparkaleku Eraikinak Txandatze Erregimenean Arautzen dituen Ordenantza; eta Araututako aparkamendurako sistemaren aplikazio-eremua arautzen duen Ordenantza.

Ordenantza berriak modu bateratuan arautuko du aparkaleku publikoen eskaintza bai sestra azpian bai bide publikoan, egoiliarren aparkatze beharrak orekatzeko eta bisitarien aparkaleku eskaria kudeatzeko. Ordenantza berri honekin Bilboko aparkatoki guztien erabilera optimizatu, sarbidea eta erabilera baldintzak bateratu, alokairu eredu indartu eta aparkaleku eta aparkaldi politiken eta beharren arabera eredu egokigarri bat martxan jarri nahi da.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

3.9 Mugikortasun ordenantza berria

Bilbok hiri mugikortasun iraunkorraren hautua egitea erabaki du mugikortasun adimentsuaren eredua bereganatuaz, bere “Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planean” (HMJP) jasota.

Mugikortasun ordenantza berriarekin “jasangarritasun” printzipioen mende arautu gura da hiri mugikortasuna, espazio publikoa berriro izan dadin pertsonak libre ibiltzeko eta elkartzeko, herritarren atsedenerako eta turismo iraunkorrerako, bai merkataritza jarduera handiko aldeetan bai gainerako kale, plaza eta hiri espazioetan. Halaber, ordenantzari esker kutsadura akustikoa eta atmosferikoa gutxitu, bide segurtasuna handitu eta ohitura osasungarriak bultzatu ahal izango dira.



3.10 BilboBus autobusak berritza ibilgailu elektriko eta hibrido berriak hartuaz

Bilboko Udalak herritarren osasuna eta bizi kalitatea hobetzera bideratzen ditu bere mugikortasun politikak. Horregatik, autobusetan eta udal ibilgailuetan zero igorpen duten hautabideak hobestea bultzatzen du, partikula kutsagarrien emisioa eta CO₂ emisioak mugatzeko.

Helburua herri garraiorako iraunkortasun handiagoko autobus multzoa lortzea da, eta horrexegatik eskuratzen ari gara entxufatzerik behar ez duten autobus hibridoak eta % 100 elektrikoak. 2023ra begira, helburua da Bilbobusen 141 autobusetatik 104 ibilgailu iraunkorrak izatea.



4. **Gaztedia, balioak, hezkuntza eta prestakuntza**

- 4.1 Bilbo unibertsitatearen eta ezagutzaren hiria
- 4.2 Haur eskola berriak irekitzea
- 4.3 “Hiri Hezitzaileak” proiektuari bultzada ematea
- 4.4 “Bilbo balioen hiria” proiektua garatzea
- 4.5 Nerabeentzako aisiaren eta kirolaren udal programazioa hurreratuaz hobetzea
- 4.6 Gazteen boluntariotza sustatzeko programa berria
- 4.7 Bilbao Hiri Gaztea (Gaztediaren Udal Estrategia)
- 4.8 Familia bateragarri egiten laguntzeko zerbitzuak hobetzea

**4.1 Bilbo
unibertsitatearen eta
ezagutzaren hiria**

Bilbok nazioarteko talentu gaztearentzat erakargarria den ezagutza hub bat izan nahi du, unibertsitateek, ikastetxeek eta ikerketa zentroek ekosistema ireki eta dinamiko bat sortzeko modukoa, enpresa eta ekintzailatza ehunarekin harreman estuan.

Horretarako, aurreikusita dago Deustu-Sarriko-Zorrotzaurre-Basurtu ardatzean prestakuntza zentro berriak ezartzeko eta horiei dagozkien espazio lagungarriak (ikastetxeen egoitzak, etxebizitza merkearen eskaintza...) jartzeko ekintzak burutzea.

Beste alde batetik, prestakuntza zentroen artean eta ikerketa zentroekin eta enpresekin aliantzak egitea sustatuko da, Bilboko unibertsitate prestakuntza nazioartekotzeko eta hiriaren eta Euskadiren ekoizpen ehunera gehiago hurbiltzeko. Ekonomia ehun berria, balio erantsi handikoa eta nazioartekotzeko ahalmen handikoa (hala nola, AS Fabrik), sortzea erraztuko duten prestakuntza ekinbideei lotutako ekintzailatza ere sustatuko da.

**4.2 Haur eskola berriak
irekitzea**

Bilboko Udala konpromisoa hartuta dago haurtzarotik hezkuntza zerbitzu eta azpiegiturak bideratzearekin eta gurasoen lana bateragarri egitearekin, eurentzat haur eskolak jarriaz hiriko auzoetan. Zeregin honekin jarraitu nahi da, orain dagoen 14 haur eskolako sarea handituz.

Horretarako, aurreikusita dago beste 2 haur eskola jartzea, Iruartetan (2020-2021 ikasturtean) eta Indautxun (2022-2023 ikasturtean), eta horrek 84 postu gehiago emango ditu (42 postu haur eskola bakoitzean). Matiko, Zurbaran eta Santutxuko haur eskoletan hobekuntza eta handitze lanak egin behar direla ere nabaritu da; agintaldi honetan proiektu espezifikoak diseinatuko dira horietarako.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

4.3 “Hiri Hezitzaileak” proiektuari bultzada ematea

Bilbo Hiri Hezitzaileen proiektuko kide da, eta horren bitartez sare tematikoak sortzen dira estatu mailan hainbat udalerriren partaidetzarekin, hezkuntzaren arloko esperientziak eta jokaera onak elkarri erakustea helburu hartuta. Konkretuki, Bilbok parte hartzen du “Balioen Hiria”, “Eskola Bereizketa” eta “Turismo Iraunkorra Hiri Hezitzaileetan” sareetan.

Datozen urteotan sare horietako jarduerari eustea pentsatu da, ikasten eta neurri edo ekinbide berriak detektatzen jarraitzeko asmoz, hezkuntzaren kalitatea hobetzen jarraitze aldera, Bilbo hiri hezitzaile / balioen hiri gisa erreferentzia bilakaraziaz.



4.4 “Bilbo balioen hiria” proiektua garatzea

Bilboren Balio Gutuna zabaltzeari jarraipena emateko berariazko ekintzak diseinatu eta martxan jartzea, bai udalbatzaren beraren barrura begira bai kanpora begira, eta gutuna atxiki duten pertsoneri garrantzi berezia ematea.

Pentsatutako ekintzen erreferentzia esparrua zehaztu diren 3 ardatz estrategiko handiak izango dira: BBH Sariak; BBH Udala eta BBH Agiria. Horrela, sari deialdi bat egingo da auzo, barruti edo hiri mailan balioak sustatzen edo garatzen dituzten proiektu konkretuei aitortza emateko; eta balioak udal proiektuetan (ekitaldietan, planetan, obretan, hirigintzan...) txertatuz udalbatzaren konpromisoa indartuko da.

Era berean, Balioen Gutunari zabalkunde aktiboa egingo zaio nazioartean, eta hiriko talde jakin batzuei egokitutako aurkezpenak egingo dira, esate baterako, umeei, gazteei eta aniztasun funtzionala duten pertsoneri.



**4.5 Nerabeentzako aisiaren eta kirolaren udal programazioa hurreratuaz hobetzea**

Nerabeei zuzendutako aisia eta kirol eskaintza ireki eta plural bat garatzea funtsezkoa da aisiako kultura osasungarri, proaktibo, parte-hartzezko eta balioetan oinarritutako bat, pertsonaren garapenari eta gazteen beregaintasunari lagunduko diona, errespetuan oinarritutako berdinen arteko harremanak sortzeko.

Giro horretan, Bilbok dagoen programazio eskaintza hurreko eta “auzo kiroletako” ikuspegi batetik hobetu gura du.

Gazteen parte-hartzearekin, Bilbok “GazteKluba” programa indartu nahi du, euren beharrei erantzungo dien ekipamendu sare bat eta aisia eta kirol jardueren agenda bat diseinatuaz.

Testuinguru horretan, ekintzarik berehalakoena, Basurtuko gai sukoiaren eraikin zaharrean beste “Gaztegunea” bat irekitzea aurreikusita dago.

**4.6 Gazteen boluntariotza sustatzeko programa berria**

Udalak gazteen boluntariotza indartu nahi du gazteek “Balioen Hiria” eraikitzen parte hartzeko eta konpromisoa hartzeko, boluntariotza programa berri bat abiaraziaz. Bilboko gazteek tokiko eta Europakoa boluntariotza proiektuetan parte hartzea bultzatzeko kondiziorik egokienak sortzea eta tokiko proiektuetan Europako gazte boluntarioen harrera hobetzea da programaren helburua.

Programa martxan jartzeak boluntariotza proiektu eta aukera guztien informazio osoa izango duen webgune berri bat irekitzea ekarriko du, eta tresna bikaina izango da ikastetxe eta unibertsitateetarako sentsibilizazio eta informazio kanpaina espezifikoak egiteko eta zabalkunderako eta kontsultarako. Beste alde batetik, laguntasun zerbitzu bat sortuko da Europako Elkartasun Gorputzaren bitartez tokiko eta Europako boluntariotza proiektuetan parte hartu nahi duten boluntario gazteentzat eta bertoko antolakundeentzat.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

4.7 Bilbao Hiri Gaztea (Gaztediaren Udal Estrategia)

Bilbo gazteek garapen aukerarik onenak izango dituzten eta parte-hartze aktiboa izango duten hiri gaztea bilakazten laguntzen duen estrategia bat artikulatzeko udalak daukan konpromisoaren emaitza da Bilbo Hiri Gaztea. Estrategia horretan oinarrituta, Gaztediaren parte-hartzea eta haien beharren eta esperantzen entzute aktiboa oinarri dituzten ekintza eta neurri zehatz berriak planteatuko dira.

Bilbao Hiri Gaztea 3 ekintza ardatz nagusiren inguruan egituratuko da: “Gaztedi Emantzipatua”, hor sartuko dira enplegua, prestakuntza, mugikortasunerako laguntza, etxebizitza eta bizitzeko baliabideak jomuga dituzten ekintzak; “Gaztedi Aktiboa”, kultura, kirol eta aisia, bizitza osasuntsu eta ekintzailatza kulturaren arloetako neurrietarako; eta “Gaztedi Konprometitua”, parte-hartzea, boluntarioratza, gizarte eta elkartasun ekintzailatza eta euskararen sustapena ekimen eremu izango dituena.



4.8 Familia bateragarri egiten laguntzeko zerbitzuak hobetzea

Arretaren erdigunean pertsonak jartzen dituen gobernantza eredu batetik, Udalak familien bateragarritasun beharren arreta euren bizileku naturalean hobetu nahi du. Horrek laguntza zerbitzuak, ekipamenduak eta jarduerak hurbiltasun ikuspegitik hobetzea dakar.

Bateragarri egiteaz hiriak dituen beharrak berraztertetik abiatuta, familia gazteen dentsitate handiena duten auzoetako hurgune eta kidegune sarea zabaltzea eta hobetzea pentsatu da. Hortaz, aurreikusita dago Abando barrutian hurgune-kidegune berri bat irekitzea eta Basurtuko eta Zazpikaleetako hurgune-kideguneak handitzea. Hobekuntza horiekin batera haur programazioaren udal agenda berri bat egingo da instalazio guztietarako.

Izen emateak eta erreserbak egiteko aplikazio berri bat funtzionatzen jartzea ere pentsatuta dago, zerbitzuetara hobeto heldu ahal izateko.



5. **Kultura eta kirola**

5.1 Bilbao Arte handitzea

5.2 Arte Ederren Museoa handitzea

5.3 Bilbori Musikaren Hiria izateko bultzada ematea

5.4 Euskal Museoa modernizatu eta handitzea

5.5 Bilbao Kultura 365

5.6 Azkuna Zentroa Gizarte eta Kultura Garaikidearen Gune gisa finkatzea

5.7 Udalak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen lotura sendotzea

5.8 Kultura lan estrategiko berria

5.9 Arriaga Antzokia arte eszenikoen programazio eta ekoizpenaren erreferentzia moduan indartzea

5.10 Errugbia eta bere balioak sustatzea

5.11 Itxaropen kaleko frontoi berria



**5.1 Bilbao Arte
handitzea**

Bilbao Arte finkatu egin da Europa mailako erreferentzia gisa erti ekoizpenerako zentro bezala, eta sortzaile gazteen eskura jartzen ditu euren proposamen artistikoak garatzeko behar dituzten baliabideak eta azpiegiturak.

Bertoko sortzaile gazteei eta munduko beste leku batzuetakoei esperientzia paregabea eta euren sorkuntza proiektuen garapenerako aukerak eskaintze aldera, instalazioen handitze bereizi bat egingo da.

Lokal osagarri bat irekitzeari esker, lantegitarako espazioak, artisten egoitzak eta erakusketa eremua handitu ahal izango dira, eta horrela Bilbao Artek bertoko erti eszenari egiten dion laguntza lana indartu egingo da.

**5.2 Arte Ederren
Museoa handitzea**

Bilboko Arte Ederren Museoak etapa berri bat hasi du, modernizatzea eta haztea ikusmiran dituela. Museoaren patronatuko gainerako kideekin elkarlanean, Museoari edertiaren behar berrietarako nahikoa eta egokitua den espazio bat ematea bilatuko da, bere arkitekturaren kalitatea gordeaz, instituzioaren identitate ikurra baita, eta bere irisgarritasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetuz.

Handitze proiektuak Museoaren bilduma aberatsen aurkezpena hedatzeko eta haren erakusketa, heziketa eta zabalkunde programak goranahi handienarekin garatzeko nahikoa izango diren espazio gehigarriak emango dizkio. Horren paralelo, kontserbazio eta ikerketa zerbituak hedatzeko hautabide bat planteatzen du, gaur egun dauden azpiegituren edukierak mugatzen baititu.



**5.3 Bilbori Musikaren Hiria izateko bultzada ematea**

Bilbok entzule guztiei egokituta musika aukera zabala eskaintzen du urte guztian zehar. Datozen urteotan, Bilbao Musikarekin koordinatuta, Bilboko bizitza kulturalean musika jarduera indartu eta finkatzeko egingo da lan. Horretarako hiriko kultura ekitaldi garrantzitsuenetan Bilbao Musikaren presentzia aktiboa bultzatuko da.

Gainera, Orkestra Zuzendaritzako Topaguneak nazioartekotzea bilatuko da, diziplinarteko kontzertu eta ikuskizunen denboraldiak programatzea, herri erakunde, elkarte eta erakunde publiko eta pribatuekin elkarlanak dibertsifikatzea eta, Bilbao Musikaren kaleko presentzia sustatzeko, Bilbon urtero musika ekitaldi bat antolatzea. Hori guztia, musikaren arloan erreferentzia den hiri baten errealitatea taxutzen jarraitzeko.

**5.4 Euskal Museoa modernizatu eta handitzea**

Euskal Museoa erreferentzia bat da euskal kulturari, eta euskal ertia eta tradizioak zabaltzeko funtsezko elementua. Gaur egun, 20.000 gauzaki baino gehiago ditu bere ondarean, gure arbasoen bizimodua eta eguneroko zeregina osatu zuten alderdi guztiak erakusten eta islatzen dituztenak.

Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik, Euskal Museoaren zaharberritze osoa egingo da, instalazioei 2.000 m² gehituko zaizkio eta diskurtso museografiko berri bat sortuko da, museoa euskal kulturaren erreferentzia gisa finkatu ahal izateko, eta "euskal kulturari sartzeko atea" bihurtuko da.

**5.5 Bilbao Kultura 365**

Kultura Bilboren eraldaketa gidatu duen eragileetako bat da, eta gaur egun hiriaren berrikuntza bultzatzen jarraitzeko estrategiaren zutabeetako bat izaten jarraitzen du. Bilbon ertia eta kultura bizitzeko estilo bat dira, eta hiriaren egunerokotasuna osatzen dute; hori argi dago ekitaldi kultural eta jostagarrien sorta zabala antolatzen delako, eta bere egutegian, beste diziplina artistiko batzuez gain, zinemaldiak eta musika, antzerki eta dantza jaialdiak barne hartzen dituelako.

Datozen 4 urteotarako, Udalak kultura jarduera 365 egunetan mantendu nahi du, kultura programazioa berraztertuz eta eguneratuz, hiri osoaren eskaera kulturalari eta, "hurreko kultura" indartuz, bereziki auzoetakoari erantzuna emango dion jarduera agenda erakargarri, berri eta zabala taxutzeko.



EKINTZA

EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH
ERLAZIONATUAK

5.6 Azkuna Zentroa Gizarte eta Kultura Garaikidearen Gune gisa finkatzea

Azkuna Zentroa, hiriaren eraikinik adierazgarrienetako batean, kultura eta aisia eremu bat da, bertaratzen diren pertsona guztiei askotariko eskaintza ematen diena. Elkargune bat da, banaka, taldeka edo familian publiko guztientzako zenbait kultura, aisia eta kirol proposamenez elkarrekin gozatzeko, ikasteko eta ondo pasatzeko.

Azkuna Zentroak hemen eta nazioartean gizarte eta kultura garaikidearen erreferentziako zentro moduan duen posizioa finkatzeko helburuz, ikuspegi berri bat eman zaio eta ikuspegi hori datozen urteotan martxan jartzeko bide orria zehaztu da. Lan egiteko eta programatzeko ildo berriak gizarte eta kultura garaikidearen esparruetan zentratuko dira, erdigunea barrurantz eta kanporantz konektatzen, erabiltzaileen esperientziak hobetzen eta oraingo eta etorkizuneko publikoekin komunikatzeko modu berrietan.



5.7 Udalak Guggenheim Bilbao Museoarekin duen lotura sendotzea

1997an inauguratu zenetik, Guggenheim Bilbao Museoak munduko mapan kokatu du Bilbo eta Bilboren nazioarteko irudia indartzen lagundu du. Museoak kalitatezko turismoa hirira erakartzea lortu du; horrek eta betiko negozio turismoak eragin handia dute hiriaren ekonomian.

Hiriaren ikono eta eragile ekonomiko eta kultural denez, lan egingo da Museoarekiko lotura sendotzen.



5.8 Kultura lan estrategiko berria

Kulturak funtsezko rola jokatzen du Bilboren jarduera ekonomikoaren eta gizarte eraldaketaren eragile gisa. Horregatik, epe luzerako estrategia bat eduki behar dugu Bilbon kultura garatzen jarraitzeko.

“2020-2030erako Kultura Plan Estrategikoak” datozen 10 urteetarako udal politika kulturalaren jarraibideak markatuko ditu, Bilboren irudia kultura hiri moduan zabalduko du nazioartean, garrantzia emango die gure aktibo kulturalak, kultura jarduera berriak sortuko ditu herritarrentzat eta kultura eta sorkuntza ehuna garatzen lagunduko du.





5.9 Arriaga Antzokia arte eszenikoen programazio eta ekoizpenaren erreferentzia moduan indartzea

Arriaga antzokia euskal arte eszenikoen bandera ontzia da, bai programazioaren aldetik bai ekoizpen propioei dagokienez, bertoko publikoarekin duen loturagatik eta nazioartean duen irudiagatik.

Datozen urteetan Bilboko arte eszenikoen jardueraren dinamizazioari laguntzen egingo da lan, ikuskizunen programazio eta ekoizpen handiago baten bidez, bertoko artista eta sortzaileekin, bertoko abesbatza eta orkestrekin eta euskal artisten tituluekin. Gainera, Bilboko arte eszenikoen ehun lokala hobetzea bilatuko da, Arriaga Antzokiak lankide dituen kultura-eragileen espezializazioa eta profesionalizazioa bultzatuaz.



5.10 Errugbia eta bere balioak sustatzea

Bilbok egin duen hautua errugbian egitea Bilboko gazteen artean bultzatzea da, errugbia gazteentzat heziketarako eta balio positiboak sortzeko tresnatzat hartuta, eta herritarren ongizatea eta osasuna hobetzen lagundu dezakeen aisia osasungarriaren eragile gisa. Beste alde batetik, kategoria goreneko errugbi talde bati laguntzeko behar den oinarrizko egitura lortzera ere heldu nahi da.

Horretarako, kirol instalazioak hobetuko dira eta kirola bera ikusgai egiteko ekintzak bultzatuko dira. Instalazioei dagokienez, Zorrotzako errugbi zelaia (zelaia eta aldagelak) eta Errekaldeko zelaia (aldagelak eta gimnasioa) hobetu eta egokituko dira. Ikusgai egiteari dagokionez, gazteen artean zabalkunde kanpainak egingo dira errugbian egiten duten klubekin eta ikastetxe elkartuekin elkarlanean, 500 jokalaria, neska-mutil, izatera heltzea helburu hartuta.





5.11 Itxaropen kaleko frontoi berria

Itxaropen kaleko frontoia berritzeko proiektuak Zazpikaleetan kirol instalazio berriak egin nahi ditu, aurreko frontoia nahitaez bota beharra egon zenez gero Zazpikaleetako metro geltokia egiteko. Eraikin berrirako 5 solairuko bolumen bakarra planteatzen da, 2 eraikuntza hartuko dituena: pilotalekua eta hainbat gela izango dituen eraikin bat, bai eta bietara sartzeko ateondo bat ere.

Itxaropen kaleko frontoi berria esparru itxia izango da, Itxaropen kaleko 2 zenbakia duen eraikinaren mehelinari atxikiko zaiona, eta gutxi gorabehera 300 pertsonako edukiera eta 7 aulki erreskadako harmaila edukiko ditu.

Beste alde batetik, eraikin berria auzoaren eskaerei erantzuna emateko denez, solairu batzuk Zazpikaleetako elkarte eta taldeek barrutiko espazio publiko moduan erabil ditzaten izango dira, eta gainerako solairuei haur, gazte eta familien aisiarako erabilera eta ekipamenduak izendatuko zaizkie, tartean haur liburutegi bat.



6. Bizikidetza eta segurtasuna

- 6.1 Bilboko udaltzaingoaren langile kopurua handitu
- 6.2 Auzoko eta komunitateko polizian oinarritutako arreta eredu osoa aplikatzea
- 6.3 Udaltzain etxe berriak irekitzea, kalean udaltzainen presentzia areagotzeko
- 6.4 Auzoetan segurtasun lantegiak hedatzea
- 6.5 EraStop APP bultzatzea
- 6.6 Auzoetan segurtasunik gabeko guneak minimizatzea
- 6.7 Bizikidetzaren Behatokiaren lana auzo gehiagotara hedatzea
- 6.8 Herritartasunaren eta aniztasunaren udal plan berria

**6.1 Bilboko udaltzaingoaren langile kopurua handitu**

Udalak 2018an izenpetu zuen “Segurtasunaren aldeko Itunak” konpromiso bat dauka: modu proaktiboan lanean jarraitzea auzoetan bizikidetzeta eta segurtasuna bermatzeko, eta horretarako 35 neurri konkretu zehazten ditu.

Neurri horiek prebentzioan oinarrituta, herritarren segurtasuna indartzeko dira, eta, besteak, beste, auzoko eta komunitateko polizia eredua bultzatu nahi dute. Eredu horrek kalean poliziako kopuru egokia behar du, eta poliziaren esku-hartze sistema guztiak deszentralizatzea ere bai, eta, horretarako, Udaltzaingoan orain dauden baino udaltzain gehiago behar dira. Agintaldi honetan apurka-apurka udaltzain kopurua 900 udaltzainera heldu arte handituko da, eta horrek aukerak emango du enplegua sortzeko bai belaunaldia berritzeko bai postu berriak betetzeko.

**6.2 Auzoko eta komunitateko polizian oinarritutako arreta eredu osoa aplikatzea**

Bilbok etengabe egiten du lan udaltzaingoaren arreta hobetzeko eta auzo bakoitzean auzokideei hurreratzeko, besteak beste, auzoko eta komunitateko polizia ereduaren hautua eginaz, herritarrei arreta zerbitzu oso eta kanal-aniztuna eskaintzeko.

Gaur egun arretarako kanalak telefonozko arretan, ikuskaritzetan salaketak jasotzean eta kaleko patruilen interakzioan oinarritzen dira. Urte hauetan garatu eta ezarri beharreko eredu berriak herritarrekin harremanak izateko modu berriak sortuko ditu, administrazio elektronikoaren eta teknologia berrien ahalmena aprobetxatuz, salaketak mugikortasunean jasotzea erraztuz eta segurtasun publikoaren arloan herritarrek parte hartzeko eredu berriak garatuaz. Horrek guztiak izango duen emaitza eredu berri oso bat izango da, arreta estandarizatua, hurrekoa eta kalitatezkoa bermatuko duena.

**6.3 Udaltzain etxe berriak irekitzea, kalean udaltzainen presentzia areagotzeko**

“Segurtasunaren aldeko Itunak” bultzatutako auzoko eta komunitateko polizia ereduak herritarrei arreta hurbila eta osoa emango dion zerbitzua dakar, auzoetan udalaren segurtasun zerbitzua bermatzen lagunduko duena.

Horretarako, dauden zerbitzuak eta ekipamenduak sendotuko dira, Deustu eta Abando barrutietan Udaltzaingoaren 2 instalazio berri irekiaz, gaur egun ez baitaukate berariazko segurtasun talderik.



**6.4 Auzoetan
segurtasun lantegiak
hedatzea**

Herritarrek parte hartzea auzoko eta komunitateko polizia ereduaren osagai bat da segurtasuna eta prebentzioa herritarrekin eurekin elkarlanean eraikitzen diren errealitate gisa planteatzen dituen ikuspegitik begiratuta, eta aldi berean ardurakidetasuna eta konfiantza sustatzen dira.

Horretarako, barruti kontseiluek parte hartzeko tresna moduan duten ahalmenaz baliatuaz, parte hartzeko foro berriak daude aurreikusita, gatazkak konpontzera eta segurtasun politika publikoak planifikatzera eta ebaluatzen bideratuta.

Auzoetako lantegien eraketan oinarrituko dira foroak, hau da, segurtasun arloan jendeak parte hartzeko egitura egonkorak, eta udaltzainek, elkarteek eta herritarrek osatuko dituzte. Lantegiak eratutakoan foro iraunkorrak eta foro irekiak egitea pentsatu da lantegi bakoitzeko.

**6.5 EraStop APP
bultzatzea**

Prebentzioa lehentasun bat da Bilboko Udalak bultzatutako segurtasun politikaren barruan, bereziki arlo honetan ahulagotzat jotzen diren talde jakin batzuei dagokienez, esate baterako emakumeak. Testuinguru honetan, teknologia berriek balio handia dute segurtasun arloan prebentziozko arreta indartzeko, telefono mugikorretarako berariazko aplikazioen garapena erraztuaz, EraStop adibidez.

EraStop-ek Bilboko emakumeen esku alerta sistema bat jartzen du, eraso matxisten salaketak geolokalizatzeko modua ematen duena eta Udaltzaingoaren baliabideak berehala aktibatzen modua ematen duena. Aplikazioak hiru funtzionaltasun dauzka, eraso bat salatzen, horrelako delituen lekuko moduan informatzeko edo laguntasuna eskatzeko. Gaur egun, 20.000 pertsona inguru dira aplikazioaren erabiltzaile.

Datozen urteotan 70.000 erabiltzailetara heldu nahi da, eta aurreikusita dago berariazko zabalkunde eta komunikazio kanpainak egitea, tresna ezagutarazteko eta erabiltzazteko.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

6.6 Auzoetan segurtasunik gabeko guneak minimizatzea

Auzoen segurtasunik gabeko guneak identifikatzea garrantzi handiko elementua da Bilboko prebentziozko segurtasun ereduari, eta horren gainean ari gara lanean, hiriko hiriguneak inklusio, segurtasun, erresilientzia eta iraunkortasun handiagoa izatea lortze aldera.

Horretarako, Udalak auzoetan detektatzen diren segurtasunik gabeko puntuetan etengabe ekinean jarraituko du. Dagoeneko identifikatuta dauden guneak berraztertuz eta segurtasunik gabekotzat jotzen diren edo izan daitezkeen gune berriak identifikatuaz eta katalogatuaz. Identifikazio fase honen ondoren, kasu bakoitzerako ekintza konkrituak zehaztu eta gauzatuko dira (argiteria hobetzea, irisgarritasun elementuak, oinezkoen pasabide berriak, arkitektura oztopoen konponbideak...).



6.7 Bizikidetzaren Behatokiaren lana auzo gehiagotara hedatzea

“Bizikidetzaren Behatokiak” Bilbon herritarren elkarbizitza hobetu nahi du gatazkak goiz identifikatuaz eta konponduaz eta gizartearen aurkako jarrerak kontrolatuaz eta zuzenduaz. Orain arte lortutako esperientzia oso positiboa izana da, eta horregatik indartu eta hedatu nahi dira bere esku-hartze lanak Bilbon.

Ildo horretan, Udalak Behatokiaren lanaren ezaupidea eta ikusgaitasuna areagotu gura ditu, eta haren prebentzio eginkizunean sakondu nahi du, auzoetako funtsezko eragileekin harreman jarraitua mantenduaz. Besteak beste, Behatokiaren Zerbitzu Gutun bat lantzea aurreikusten da, eta auzo guztietan haren lanari buruzko berriazko zabalkunde eta komunikazio ekintzak egitea.



6.8 Herriartasunaren eta aniztasunaren udal plan berria

Bilboko Udalak bereganatu egiten du Bilbo kohesionatu eta berritzaile baten alde lanean jarraitzeko konpromisoa, garapena eta bizi kalitatea nagusi izan daitezen. Helburu horren barruan, Bilbok kulturarteko gizarte bat garatzearen hautua egiten du, ezberdintasunak berdintasun esparru batean onartuaz eta herritarren baliabide aniztasuna indartuaz, gehitzeko eta elkarrekin hiria garatzen laguntzeko. Guztiek parte aktiboki hartuko duten hiri bat, eta bizikidetzaren proiektu komunean parte hartzeko pertsona guztiei aukera emango zaiena.

Horretarako, “Herriartasunaren eta Aniztasunaren Udal Plan” berri bat garatuko da, zeharretara zabalduko dena, etorkinak udalaren bizitza politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalean txertatzeko. Plan horren lehentasun ildoak gizarte kohesiora, kulturarteko bizikidetzara eta inklusiozko herriartasun bat lortzera bideratuko dira.



7. Iraunkortasuna eta hiri eraldaketa

- 7.1 Artxandaren dinamizazioa eta garapena
- 7.2 Itsasadarra dinamizatzeko plana
- 7.3 Bilboko parkeak dinamizatzeko plana
- 7.4 Bilboko Ingurumen Estrategia aplikatzea
- 7.5 Abandoko geltokiaren hirigintza antolamendua onartzea
- 7.6 Zorrotza Puntako Plan Berezia behin betiko onartzea
- 7.7 Peñaskaleko Plan Berezia behin betiko onartzea
- 7.8 Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzea
- 7.9 Zorrotzaurreko 2. Egikaritze Unitateko Ituntze Batzarra eratzea
- 7.10 Zorrotzaurre urbanizatzen aurrera egitea (ipar punta, hego punta eta eskumaldea)
- 7.11 Ostalaritzako Terrazen Plana aplikatzea
- 7.12 Tokiko 21eko Agenda garatzea
- 7.13 Uraren zikloa optimizatzea
- 7.14 Herritarren kontzientziazioa birziklapenarekin (Ekonomia zirkularra)
- 7.15 Hiriko berdeguneei bultzada ematea



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

7.1 Artxandaren dinamizazioa eta garapena

Artxanda dinamizatu eta garatzearen helburua herriaren aisia eta gozamena bultzatzea da, Artxandaren ingurunea Bilboren hiri garapen iraunkorrean erreferentziako espazio bat izan dadila. Horretarako, proiektu eraldatzaile hauek burutzea dago pentsatuta, Artxandako espazio libre eta berdeei garrantzia emanaz, Deustutik Egirletaraino:

- Errepidea pasealeku-begiratoki bihurtzea.
- Hatz Markaren parkea eta Topagunearen parkea hobetzea.
- San Roke eraikinaren ondoan beste berdegune bat sortzea.
- Ekonomiaren aktibazioari bultzada ematea, familiarentzako eguneko jolas eskaintza iraunkorrarekin.



7.2 Itsasadarra dinamizatze plano

Bilboko Udalak itsasadarra aktibatu eta babesteko plan bat burutu gura du, itsasadarra hiriaren elementu adierazgarrietako bat delako eta hiriaren eraldatze prozesu etengabearen atal moduan. "Itsasadarra dinamizatze planoak" itsasadarraren esparru fisikoa eta eskumen esparrua osorik zehaztuko ditu, eta bertan eta bere inguruan aisiarekin, kirolarekin eta kulturarekin zerikusia izanik egin daitezkeen jardueren eredua diseinatu eta garatu egingo du.

Plana agintaldi honetan onartu eta abiaraziko da, maila askotako herri erakundeen eta eragileen elkarlanarekin.



7.3 Bilboko parkeak dinamizatze plano

Parkeak hiriaren eta kokatuta dauden auzoen "birika" estrategikotzat jotzen dira, eta Bilboren "eratzun berdea" aktibatze politikaren funtsezko elementuak dira. Politika honen helburua aire libreko atseden, aisia eta jolas guneak hobetzen saiatzea da, belaunaldiarteko izaera handituz, bateragarri egitea bultzatuz eta auzokoen bizi kalitatea hobetuz.

Testuinguru honetan, Bilboko parke sarea hobetzen jarraituko dugu ekipamendu eta azpiegitura berriak erantsiaz hiriko parke nagusietan, hau da, Etxebarria, Europa, Casilda, Ibaieder eta Eskurtze parkeetan.



**7.4 Bilboko Ingurumen
Estrategia aplikatzea**

Bilbok udalerriaren etengabeko ingurumen hobekuntzarantz jarduteko konpromisoa bereganatzen du. Horrexegatik, udalerriaren ingurumen iraunkortasuna indartu eta handitzera begira, datozen urteetarako Ingurumen Estrategia zehaztu du, ingurumenaren ikuspegitik dauzkagun 3 erronka handiei erantzuna emateko: CO₂-an neutrala izatea, klima aldaketarekiko erresilientzia edukitzea eta ingurumen kalitatean osasungarria izatea.

Helburua 2030ean CO₂ emisioen % 40 gutxitzea heltzea eta 2050ean neutrotasuna lortzea da.

**7.5 Abandoko
geltokiaren
hirigintza
antolamendua
onartzea**

Abiadura handia Bilbora heltzeak Abandoko geltokiko lursailetan eta hurreko espazioetan hirigintzako esku hartzeak egin beharra ekarriko du, geltoki berria hirian integratzeko eta azpiegitura berriaren sarbideak egin ahal izateko. “Abandoko Geltokiaren Hiri Antolamenduko Plan Berezian” jasoko dira esku hartze horiek, eta eginkizun hauek hartuko ditu:

- Geltokia lurperatzeak libre utzitako lursailen (Hurtado de Amezaga kalearen ondoko burdinbideak) eta Bailen kalearen aurrealdearen antolamendua.
- Erabilera berriak oraingo “ganga” osatzen duten eraikinetarako eta Concordia geltokirako.
- Iparraldeko Partikularreko eraikinen kontserbazio eta esku-hartze irizpideak.
- Abando eta San Frantzisko – Bilbo Zaharra auzoen artean dauden hiri oztopoak kentzea.

Plan hau hirigintza diseinuko lehiaketa baten deialdia eginaz zehaztu eta onartuko da; horrek hasierako lehen fase ireki bat edukiko du proposamenak aurkezteko eta ondorengo fase itxi bat, eta hortik hautatuko da aukera gune honetarako diseinua.



**7.6 Zorrotza Puntako
Plan Berezia behin
betiko onartzea**

Portuaren jarduera Zorrotza Puntan amaitzeak beharrezkoa egiten du hirigintza plan berri bat zehaztea ingurune honetarako, auzoaren bizitegi garapena itsasadarreantz egiteko eta espazio berriak sortzea jarduera ekonomikoetarako eta ekipamendu berrietarako.

Plan berri hau agintaldi honetan zehaztu eta onartuko da eta eduki hau izango du:

- Zorrotzaurre eta Burtzeña auzoen arteko hiri jarraitutasuna ebaztea Ibaizabal Abusutik Santurtziraino itsasadarrearen ibaialde biak hezurmamitzeko.
- Egon dauden erabilerak (portua eta industria) berri hiri erabilerak jarriaz (bizitegia, jarduera ekonomiko berriak eta ekipamenduak).
- Zorrotzako gunearen eta Zorrotza Puntako inguratzen duten ibaiertzen artean komunikazioa hobetzea errepidez, oinez eta bizikletaz.

**7.7 Peñaskaleko Plan
Berezia behin
betiko onartzea**

Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak hiriberritzeko ekintza sorta bat burutu dute Iturrigorri eta Gardeazabal inguruetan, besteak beste, etxebizitzak eraistea eta okupatzaileak beharrezko irisgarritasun bermeak betetzen dituzten eraikin berrietan berriro jartzea.

Hiriberritzeko ekintzak osatu eta zonalde honen behin betiko antolamendua zehaztu ahal izateko helburuz, ondorengo gaiak kontuan hartuko dituen Plan Berezi bat eduki behar da:

- Eraikinetan sartzeko kanpo eskaileretarako dauden hirigintza oztopoak kendu eta irisgarritasun konponbidea eman ezin zaien eraikinak ordeztzea.
- Aurrekoen ordeztzea eraiki beharreko eraikin berrien antolamendua, okupatzaile guztiak eraikin irisgarrietan sartzeko direla bermatuz.
- Auzo hau dagoen hiri ingurune orokorra eta urbanizazioa hobetzea.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

7.8 Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzea

“Hiri Antolamenduko Plan Orokor” berriaren helburua 1995az gero indarrean dagoen aurreko planaren ordezkia izatea da, eta herritarren eskaerei eta hiriaren hirigintza beharrei datozen 10-15 urteetarako erantzuna ematen saiatzea. Plan berria egiten 2018an hasi ginen, herritarrek parte hartzeko prozesua barne.

Gaur egun Plana hasierako onarpen fasean dago, eta begiz jota dago 2021ean behin betiko onartuko dela. Behin betiko onarpenera heltzeko ekintza hauek egingo dira:

- Herritarren beste informazio aldi bat irekitzea.
- Udalbatzak oso bilkuran behin-behineko onartzea eta espedientea bidaltzea ingurumeneko eta lurralde antolamenduko txostenak lortzeko.
- Udalbatzak osoko bilkuran behin betiko onartzea.



7.9 Zorrotzaurreko 2. Egikaritze Unitateko Ituntze Batzarra eratzea

2. Egikaritze Unitateko Ituntze Batzarra Zorrotzaurre uhartearen erdialdeko lur eta eraikinen jabeen talde formala da. Batzar honen eraketa jabeen akordio batean formalizatzen da, eta beharrezkoa da uharteko eraikin berriak eraikitzen eta urbanizatzen hasi ahal izateko inguru horretan, eta horretarako egin behar den lursailen birziketara aurrera eramateko eta lurzoruen kutsadura kentzeko prozesuari buru emateko.

Bilboko Udalak Batzarraren eraketa sustatu eta errazteko konpromisoa dauka, uhartearen erdigune osoaren hirigintza garapena uharte osorako zehaztu den “master-plan” onartuaren arabera egin ahal izateko.



7.10 Zorrotzaurre urbanizatzen aurrera egitea (ipar punta, hego punta eta eskumaldea)

Zorrotzaurrearen eraldaketa prozesua zenbait fasetan egituratu da; fase horien arabera lehenik eta behin kanalaren eskumaldea urbanizatzen aaitzea pentsatu da, Botikazaharretik San Ignazioko zubi berriraino, alde honetan dagoeneko eraikitzen ari baitira eraikuntza berriak. Hurrengo faseetan San Ignazio–Deusturekin lotuta dauden uharteko zonaldeei ekitea dago pentsatuta, zubi berriak eraikiaz.

Prozesu honek uhartearen ipar eta hego muturrak urbanizatzea dakar, hor kokatzen baitira Zorrotzaurre Berrikuntzako Hiri Barrutiaren 2 poloak.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH
ERLAZIONATUAK

7.11 Ostalaritzako Terrazen Plana aplikatzea

Bilboko Udalak badaki zenbaterainoko garrantzia duen erabilera orekatuak dituen eta, iraunkortasunaren ikuspegitik, espazio publikoaren erabilera ona egiten den hiria, auzoak eta kaleak edukitzeak, eta, gainera, auzokoen erosotasuna mantentzea.

Ildo horretan, espazio publikoaren erabilera egokiaren gainean jardun beharra detektatu da terraza kontzentrazio handiagoa dagoen eremuetan, eta horretarako ostalaritzako terrazen plan bat zehaztuko da eta praktikan jarriko da.

Espazio publikoaren oraingo erabilera egungo udal ordenantzan baimentzen denari egokitzen zaiola ikuskatzera orientatuta egongo da plana, hau da, oraingo baimenak betetzea bultzatzera eta establezimendu bakoitzak behar duena baino gehiago ez dezan okupatu. Halaber, baimenak hiriaren egoerara egokitzeko prozesu bat burutuko da aldagai objektiboak erabiliko dituen eredu matematiko baten bitartez, kasu bakoitzean gure espazio publikoaren erabilera orekatu eta iraunkor baterako okupatu behar den “marka” edo espazioa zehaztuko duena.



7.12 Tokiko 21eko Agenda garatzea

Bilbok ingurumenarekiko begirunetsuagoa den posizio baterantz egokitzen du bere udal politika. Udalak aspaldidanik egiten du lan garapen iraunkorraren alde, Tokiko 21eko Agenda bereganatuaz garapen iraunkorraren ikuspegitik hiria hobetzen jarraitzeko tresna bat delako.

Udalak bere Ingurumen Estrategia betetzeko bultzatuko dituen helburu eta ekintzak zehazten ditu Tokiko 21eko Agendak. Hori guztia, bilbotarren bizi kalitatea hobetzea ekarriko duten gizarte moderno, zuzen eta solidarioago baterantz, inguruari begirunea dion ekonomia lokal dinamiko baterantz eta hiri ingurune iraunkor baterantz aurrera egiteko helburuz.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

7.13 Uraren zikloa optimizatzea

Bilbok aurrera jarraitu nahi du hiri iraunkorrako bat garatzen, besteak beste, ura bezala urriak diren baliabide naturalen kudeaketa eta erabilera hobetzen saiatuaz. Berariaz, Udalak hiriaren “ur balantzea” optimizatu nahi du, uraren kontsumoa kontrolatu eta gutxitu ahal izateko, uraren zikloaren ingurumen eta ekonomia kudeaketan bikaintasunerantz aurrera eginaz.

Hobekuntza horiek lortzeko, sareko edateko ura kontsumitzen duten udalaren tresnetan (mahukak, erratz makinak, ureztatzaileak...) neurketa elementuak jartzea erabaki da, erregistratu gabeko kontsumo baimenduak kontrolatze aldera. Beste alde batetik, banaketa sarean presioa gutxitzeko elementuak ipintzea erabaki da, eta sare eta deposituak sentzorizatzeko sistemak, alerta maila hobetzeko. Uholdeei aurre egiteko, “ekaitz tangak” instalatzea ere erabaki da.



7.14 Herritarren kontzientziazioa birziklapenarekin (Ekonomia zirkularra)

Baliabideak aprobetxatzea, berrerabiltzea eta birziklatzea nagusi izango dituen ekonomia zirkularreko eredu batera aldatzeko trantsizioa egitea hiri iraunkorren erronka handietako bat da. Ildo horretan, Bilbok birziklatzeko ohitura sendotu eta kontsumo iraunkorra eta hondakinen kudeaketa ona sustatu gura ditu.

Datozen urteotan Udalak herritarrentzako zabalkunde eta kontzientziazio kanpainak egitea erabaki du, birziklatzearen eta lehengaiak modu arduratsuan kontsumitzearen garrantziaz eta onurez herritarrak konturazteko. Teknologia berrien ahalmena aprobetxatuz, mugikorrerako aplikazio bat garatzea pentsatuta dago, gai organikoa birziklatzea eta “Bilbogarbi” guneko garbiak erabiltzea sustatzeko. Aplikazio honi esker, hondakinen balioarekin jokatu ahal izango da, sariak lortzeko aukera emango duten “puntuak” eskuratuko baititu.





7.15 Hiriko berdeguneei bultzada ematea

Bilboren ondare berdeari garrantzia ematea eta izadia herritarrengana hurreratzea Udalaren helburu bat da, iraunkortasuna herritarren egunerokotasunean integratzeko bidean, hiriko eremu natural eta berdeekin “Erastun Berdea” deritzona atalez atal osatuaz.

Horretarako, Udalak zenbait ekintza egingo ditu, besteak beste, jarlekuak, iturriak eta gerizpeak ipiniaz parke eta plazetako atsedeen eta aisia lekuak hobetzea eta, txakurrentzat egokiak izan daitezkeen, eremu berriak egokitzea. Halaber, 500 zuhaitz berri landatuaz eta sastraka lekuak landareztatuaz berdeguneak hobetuko dira.

Artxandako eta Pagasarriko ingurune naturala berariaz sendotuko da ingurune basoak eta larreak berreskuratuz eta basoko bidezidorrak eta pistak hobetuz. Neska-mutikoei zuzendutako ingurumen ikasgelak martxan jartzea ere erabaki da, berdeguneetan ikastea eta gozatzea bultzatzeko.



8. Auzoen garapena

8.1 Barrutiko Udaltegiak hobetzea

8.2 Parte-hartze prozesuak aztertu eta hobetzea auzoetako obrak lehenesteko (Auzokide Plana)

8.3 WIFI bidez doako Internet konexioa auzoetako aisiagune eta ekipamenduetara hedatzea, arrakala digitala txikitzeko

8.4 Auzo Bihotzak garatzen jarraitzea

8.5 Goi auzoetan irisgarritasuna hobetzea

8.6 Bilboko auzoak hiriberritzeko plana

8.7 Gaueko aisiaren zarata mapa lantzea

Oharra: Agintaldiko Plan honetan beste ekintza batzuk aurreikusita daude Planaren beste ardatz batzuetan txertatuta, baina zuzeneko eragina eta onura izango dute Bilboko auzoen hobekuntzan eta orekan.



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

8.1 Barrutiko Udaltegiak hobetzea

Barrutiko Udaltegien azpiegiturak eta instalazioak aztertzea, funtsezko tresnak baitira udal izapideen kudeaketa deszentralizatzeko eta herritarrek parte hartzeko eta herritarrei arreta egiteko.

Egin behar den hobekuntza lana 3 Udaltegi birmoldatu, egokitu eta handitzea da, horrela jarduera eta zerbitzu berriak egin ahal izateko, eta zehazki:

- Barrainkua kalean dagoen Abandoko Barrutiko Udaltegi berriaren jarduera hastea, birmoldatu eta handitu ondoren.
- Basurtuko Barrutiko Udaltegia egokitzeko lanak.
- Zorrotzako Udaltegi berria birmoldatzeko eta/edo kokapenez aldatzeko azterketa.



8.2 Parte-hartze prozesuak aztertu eta hobetzea auzoetako obrak lehenesteko (Auzokide Plana)

“Auzokide Plana” prozesua modernizatzea, prozesuaren garapenaren gardentasuna eta kontu ematea bere fase guztietan hobetzea lortzeko.

Aztertzearen emaitza Auzokide Planaren prozesu berri bat izango da, herritarrei parte-hartze prozesuak erraztuko dizkiena, euren auzoetan egin beharreko obretan lehenespak ezartzeko eta ondoren egikaritze prozesuaren jarraipena egiteko.



8.3 WIFI bidez doako Internet konexioa auzoetako aisiagune eta ekipamenduetara hedatzea, arrakala digitala txikitzeko

Bilbok zerbitzu propioa eta herritarrentzako Wi-Fi sare bat garatu du azken urteotan, doan eta modu unibertsalean Interneten konektatzeko aukera ematen duena. Sareak hiriaren zati handi bat estaltzen du, 150 konexio puntu ditu kalean eta 520 udalaren eraikinetan, eta batez beste 2,5 milioi gailu konektatzen dira hilean.

Datozen urteotan zehar, konexioa eta sarearen hedapena indartu nahi da auzoetan bereziki bizimodua egiten den eta elkargunea egoten den ekipamendu eta espazio publiko berrietan. Horretarako, beharrak berrikusi eta aztertuko dira, arreta berezia eskainiaz periferiako auzoei, eta horren emaitza 400 konexio puntu baino gehiago ipintzea izango da.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

8.4 Auzo Bihotzak garatzen jarraitzea

Auzo Bihotzen proiektua hiri proiektu estrategiko moduan aurkeztu zen Bilboko auzo guztien garapen orekatua bideratzeko. Auzo horietarako hiriberritze ekintzak egiten ari dira, eta gizarte, kultura eta ekonomia bizitza bultzatzen duten espazioak garatzeko ekintzak ere bai, euren nortasuna sendotzeko eta auzo—erdialde sare batean txertatzeko.

Ekintzak hasierako fasean 36 auzoetatik 18tan zentratu dira, eta profil adierazgarrienak hautatu dira. Datozen urteotan Uribarriko obrak amaitzeko asmoa dago, eta Deusturekin eta San Ignazio—Elorrietarekin konektatzen ere amaitzeko asmoa. Era berean, eraikuntza proiektu berriak egingo dira Santutxu auzoan (Karmelo plaza), Deustun (San Pedro Doneperiaga plaza) eta Ibaizabal Abusun (Ibaizabal zelaia eta Ibaieder parkea). Proiektuak Barrutiko Kontseiluekin adostuta zehaztu eta diseinatuko dira.



8.5 Goi auzoetan irisgarritasuna hobetzea

Bilboko goi auzoak esaten zaienak hobetu eta biziberritzeak Udalarentzat lehentasuna izaten jarraitzen du, euren orografia bereziak eragiten dituen irisgarritasun eta ekipamendu gabeziak apurka-apurka minimizatzeko helburuz. Agintaldi honetarako esfortzuak irisgarritasun fisikoaren arazoak konpontzera bideratuko dira, bai auzoen barruan bai hiriaren erdialdearekiko loturan.

Horretarako, zenbait esku-hartze egingo dira, eta lehentasuna emango zaie bilguneetarako (ekipamenduak, zerbitzu zentroak...) ibilbideei eta garraiobideekin dituzten konexioei. Esku hartze horiek batez ere ekarriko dute arrapalak eta irisgarritasun elementu mekanikoak instalatzea, espaloi ertzak janaz beheratzea eta garraiobide egokituak auzoetan: Olabeaga, Uribarri—Bakio, Plentzia, Gorliz, Irala—Andres Isasi, San Agustin estarta, Mallona—San Domingo Guzman, Altamira eta Otxarkoaga.





EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

8.6 Bilboko auzoak hiriberritzeko plana

Bilbok hiriko auzo guztiak modu kohesionatu eta orekatuan garatzea du helburu, bai hirigintzaren aldetik bai ekonomiaren eta gizartearen aldetik ere, haien arteko oreka sustatuaz eta auzoak gero eta osasungarriagoak eta adiskidetsuagoak izan daitezen bultzatuaz, zerbitzu hurbilagoak dituztenak gazteentzat eta auzokoentzat oro har.

Testuinguru horretan, Udalak auzoak eraldatzeko plana bat prestatu eta ezarriko du, ikuspegi osoa harturik eta ekintza faktore-aniztunak epe laburrean eta epe ertainean eginaz. Planak auzoak biziberritzeko ekintza eta proiektu estrategikoak zehaztuko ditu 2050 urtea helmuga jarrita, premia handienak dituzten auzoei arreta berezia eskainiaz.



8.7 Gaueko aisiaren zarata mapa lantzea

Zabal frogatuta dago, esposizio maila handian modu jarra tuan egonez gero, kutsadura akustikoak osasun fisiko eta psikologikoko arazoak sortzen dituela. Udalaren Hots Estrategiak zarata ateratzen duten gune nagusi bi identifikatzen ditu. Garraioak eta hiriko jarduerak eragiten duten zarata eta jendea pilatzen den aisia jardueretatik datorrena.

Gaur egun "Zarata Mapa Estrategikoa" daukagu, udalaren eskumeneko zarata guneak markatzen dituena, udalerriko hiri zirkulazioa eta industria, eta beste administrazio publiko batuei dagozkien zarata guneak, horien emisio akustikoek udalerrian eragiten dutelako. Horrez gain, "Gaueko Aisiaren Zarata Mapa" landuko da, gehiegizko kutsadura akustikoa (zarata) gertatzen den egoerak identifikatu eta konpondu ahal izateko, hiriko auzo guztietan.



9. Bilbo euskalduna

9.1 Euskararen erabilera normalizatzeko plan berria

9.2 Lehenengo hitza euskaraz

9.3 Bilbon euskaraz bizi



**9.1 Euskararen erabilera normalizatzeko plan berria**

Euskararen erabilera normalizatzeko plan berriaren bidez euskararen erabilera finkatu nahi da, bai herritarrei ematen zaien zerbitzuan, bai Udalaren barruko lanak egiten eta kudeatzen. Azken helburua herritarrek Udalarekiko harremanean dituzten hizkuntza eskubideak bermatzea da.

Barrura begira, Udalaren arlo bakoitzari egokitutako gaikuntza eta prestakuntza ekintzak egitea pentsatuta dago. Era berean, kalitatearekin zerikusia duten berariazko ekintzak abiaraziko dira, eta hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak finkatuko dira. Besteak beste, ahozko arretan, jendaurreko ekitaldietan eta komunikazio eta zabalkunde ekintzetan euskara erabiltzeko protokoloak prestatzea eta euskarazko agiri estandarizatuak lantzea izango dira ekintza horiek.

**9.2 Lehenengo hitza euskaraz**

“Lehenengo hitza euskaraz” Bilbon euskararen gizarte erabilera areagotzera zuzendutako ekinbide bat da; horretarako berariazko zabalkunde kanpainak egingo dira, herritarrei arreta egiten zaien lekuetan euskararen erabilerari buruz jokabide proaktiboa nagusitu dadin.

Kanpaina horiek hiriaren kultura eta aisia ekitaldi edo egun adierazgarriei lotutako orri sortak diseinatu eta zabaltzea izango dute oinarri, esate baterako, San Tomas eguneko azoka, kirol ekitaldiak eta abar.

**9.3 Bilbon euskaraz bizi**

“Bilbon euskaraz bizi” herritarren artean euskararen erabilera sustatzera zuzendutako ekinbideetako bat da, eta euskara “kalean” mobilizatzen du.

Horretarako, urtero diseinatuko da berariazko jarduera egitarau bat, herritarren ahozko hizkuntza ohiturak aldatzera zuzendua, euskarari lotutako gizarte-eragile eta elkarteekin elkarlanean eta koordinatuta. Jarduerak elkarriketa sustatzeko berariazko espazioak, prestakuntza hitzaldi eta ikastaroak, auzoetako topaguneak eta abar ekarriko dituzte, bai formatu presentzian bai digitalean.



10. Gardentasuna, parte hartzea, zorroztasuna eta kudeaketa ona

10.1 Administrazio elektronikoa finkatzea eta normalizatzea

10.2 Parte hartuzko aurrekontuen prozesua aztertzea eta hobetzea

10.3 Gardentasun Ataria eguneratzea, etengabe hobetzeko

10.4 Irisgarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua ikuspegi hartuta herritarrentzako informazioa hobetzea



EKINTZA



EKINTZAREN DESKRIBAPENA



GIH ERLAZIONATUAK

10.1 Administrazio elektronikoa finkatzea eta normalizatzea

Bilboko Udalak, “Administrazio elektronikoa” izateko duen konpromisoagatik, beste urrats bat eman nahi du agintaldi honetan tramitazio elektronikoaren erabilera herritarren artean sustatzeko eta “365/24 udaletxea” izaterantz aurrera egiteko.

Horretarako, 2 ildo izango dira lantegi. Alde batetik, barruko lan handia egiteko asmoa dago, duden prozesu eta prozedurak berraztertzen eta estandarizatzen, mundu digitalera egokitzeko, eta azpiegitura eta aplikazio informatiko lagungarriak berritzeko asmoa ere badago. Gaur egun ia 500 prozedura daude, eta horietatik lehentasuna emango zaie izaera administratiboa dutenei eta herritarrengan eragin handiagoa dutenei.

Beste alde batetik, herritarrentzako zabalkunde eta informazio kanpaina bat burutuko da, batez ere barrutietako informazio eta dibulgazio saioetan eta Udalaren webguneko InfoBilbao ataleko berariazko azalpen-edukietan bermatuta.



10.2 Parte hartuzko aurrekontuen prozesua aztertzea eta hobetzea

Aurrekontuak parte hartuaz lantzeko prozesuaren metodologia berri bat diseinatzea. Udalaren aurrekontuaren zati baten zertarakoa erabakitzen den prozesu honetan herritarrei zeregin protagonistakoa ematea helburu dugula.

Prozesu berriak erraztu egingo du herritarrek proposamenak egitea eta tramitatzea, eta proposamenak aztertu eta lehenestea ere bai, eta lehen unean baztertu diren proposamenak barrutietan berriro balioesteko aukera emango da.



10.3 Gardentasun Ataria eguneratzea, etengabe hobetzeko

Gardentasun Atariaren edukiak aztertu eta hobetzea, ematen den informazioa ulergarriagoa eta didaktikoagoa egiten aurrera jarraitze aldera eta udalaren proiektuen jarraipen jarraitu eta gardena bermatze aldera.

Berariaz, agerraldien, galderen eta Informazio batzordeetako akten argitalpen osoa eta irisgarria egiteko asmoa dago. Era berean, argitaratutako informazioaren kalitatean eragitea eta datuak zabaltzen eta horiek berrerabiltzen batera aurrera egitera zuzendutako “Open Data Euskadi” ekinbidean aktiboki parte hartzea planteatzen da.





10.4 Irigarritasun unibertsala eta guztientzako diseinua ikuspegi hartuta herritarrentzako informazioa hobetzea

Bilboko Udalak lanean jarraitzen du herritarrei zuzendutako udal informazioan eta arretan irigarritasun unibertsala hobetzen.


Berariaz, herritarrentzat interes handienekoa den informazioari eta dokumentazioari dagokionez, datozen urteotan "irakurketa erraza" kontzeptua estandarizatzen eta orokortzen sakondu gura dugu. Berdintsu, irigarritasun kognitibo eta sentsozialeko berrikuntza proiektuak garatzen, eta Udalaren pertsonala arlo honetan prestatzen eta sentsibilizatzen.



3. Jarraipena egitea, ebaluatzea eta kontuak ematea



Bilbao



Agintaldiko Plan honek sendotu egiten du Bilboko Udalak Gobernu Irekiarekin duen konpromisoa.

Konpromisoak:



Parte hartzea



Gardentasuna



Kontuak ematea



Horregatik, **ekin beharreko lehentasunezko proiektuak zehaztea** bezain garrantzitsua da horien **jarraipena, ebaluazioa eta kontuak ematea argi eta garden egiteko sistematika** bat ezartzea. Prozesu honetan guztian zehar **herritarren eta lurraldeko funtsezko eragileen benetako parte hartzea** ahalbidetuko duten tresnak eta espazioak eskainiaz.


Plan honen zabalkundea egindakoan, Udalaren sail eta erakunde guztiek **lehentasunezko ekintzak bultzatzeko eta jarraipena egiteko** lana hasiko dute.



Jarraipena jarraitua izango da, eta **www.bilbao.eus** webgunearen bidez etengabe emango dira kontuak.

Gainera, kontu emate hori osatzeko, **topaketa pertsonalak** egingo dira, eta horietan bai alkateak bai gainerako Gobernu Taldeak bere kudeaketa defendatuko du herritarren aurrean **auzoetan eta sektoreka topaketak** eginaz.

Hori guztia **Bilboko herritarrek urte hauetarako ezarritako helburuen betetze maila erraz ebaluatu ahal** dezaten.





Bilbao

Bilboko Udala



www.bilbao.eus